

2003ko otsaila

13. zenbakia

aikor!



txorierriko aldizkaria



**Manuene, 20 urte
drogadikzioari aurre
egiten**

Egunlaria
precintado

- Amaia Olabarieta - Odo!-emaileak - Carmen Mendiguren

Egunkaria behar dugu

Euskaldunon Egunkaria itxi dutela eta, agiri hau sinatzen dugun Aikor! aldizkariak eta Totoan, Txorierriko Euskara Elkartearen Federazioak (Lagatzu, Zorritzeta eta Arrekikili) honakoa adierazi nahi dugu:

- * Euskaldunon Egunkaria itxi izana euskararen, euskal prentsaren eta adierazpen askatasunaren aurkako eraso da.
- * Dei egin nahi diegu euskalgintzari eta euskal gizarte osoari eraso larri hau salatzeri.
- * Euskararen normalizazioaren eta euskal prentsaren alde lanean jarraitzeko konpromisoari tinko eutsiko diogu.
- * Euskal Herriak euskarazko egunkaria behar du, ezinbesteko tresna baita gure hizkuntzaren normalizaziorako. Euskaldunon Egunkariako langileek euskarazko egunkaria kaleratzen jarraitzeko asmoa dute. Beraz, euskal herritar guztien laguntza beharko dute. Ildo horretatik, guk ere laguntza eskaini eta konpromiso irmoa adierazi nahi diegu, euskarak egunero eta Euskal Herri osoan ahotsa izan dezan.





Argitaratzailea: TOTOAN,
Txorierriko Euskara Elkarten
Federazioa
(Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili)
Tf.: 94 452 34 47
e-posta: totoan@topagunea.com
aikortxori@yahoo.es

Zuzendaria: Xabier Goienetxe
Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Juantxu Bilbao,
Patxi Gaztelumendi, Arantzazu
Mendiguren, Fernando Larrondo,
Jose Angel Mentxaka, Alberto
Legarreta, Mari Tere Onaindia,
Belen Gana, Amagoia Guezuraga,
Maite Aranburu, Fernando
Olabarrieta.

Kolaboratzaileak: Iñaki Bilbao,
Oihana Astobieta, Puri Martinez,
Lourdes Lasuen, Asier
Oruetxebarria, Joseba Butron,
Udane Goikoetxea, Txema Pico, Juan
Luis Goikoetxea, Txorierriko AEK,
Lezamako Pelota Alkartea, Aritz ta
Nagel.

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la
Cuadra, Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi

Banaketa: Arantza Atxutegi, Josu
Ziordia.

Maketatzailea: Ainara Torres

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 4.750

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN
1578-9322

Aikor!-ek ez dau bere gain
hartzen aldizkarian adierazi-
tako esanen edota eritxien
erantzukizunik.



Euzko Jaureritza



Bizkaiko Foru
Aldundia
Kultura Saria

diruz lagundutako aldizkaria



13 Amaia Olabarrieta



16 Manuene



10 KZ gunea



15 Kike Amonarriz



20 Odol-emaileak



24 Carmen Mendiguren

4 Eritxia 5 Aikor!-i gutunak 6 Laburrak eta albisteak
10 Loiuko KZ gunea 11 Agate Deuna 12
Irratiko mundua 13 Gaztea eta... 14 Ihauleriak 15
Kike Amunarriz 16 Manuene 19 Txorierriko gazteak
20 Odol emaileak 22 Baserri mundua 23 Teknologia 24
Carmen Mendiguren 26 Txorierri ezagutu 27 Txorierritarrak
munduan 28 Sukaldaritza 29 Denbora pasa 30 Agenda

AIKOR! aldizkariaren laguntzailea izan gura badozu, Hemen dozu erea:

Izen-abizenak _____

Helbidea _____

Telefonoa _____ **e-posta** _____

Bankuko 20 zenbakiak _____

Egin zure aukera: 20 eruro ___ **beste kopuru bat** ___

Orri hau helbide honetara bialdu: Sabino Arana plaza, 3 48170 Zamudio
zure laguntzagaz aldizkaria hobetuko dogu!

Danon esku dago



Joseba Butron (Irakaslea)

Aurten Mikel Zarate joan jakunetik 24 urte beteko dira. Apur bat gehiago edo gutxiago, Txorierriko euskaldun gehienok dakigu nor izan zan, danok entzun dogu zezor Mikeleri buruz. Badakigu Lezamako euskaltzale handi honek zelango ahalegina egin zeuen euskerearen alde.

Mikel bizi izan zan denboran ia dana egoan egiteko, gure kultura garai barrietara egokitzeko, denbora modernoetara ekartzeko. Ez egoan euskerazko egunkaririk, ez telebisionirik, aldizkariaren bat edo beste... Gaur egun arean gehiago badaukagu, baina asko dago oraindino egiteko. Eta gure kulturearen alde danok egin geinke apur bat gehiago, bakotxaren ahalegintxo, besteenakaz batera, bola handia bihurtzen da-eta.

Baina pertsona batzuen ahalegina beste batzuentzat ezin leiteke atxakia bihurtu, egin behar dabena ez egiteko. Argiago esanda: Txorierriko udaletan dagozan agintariak herritarrek aukeratu dabez, zertarako-eta beste gauza batzuen artean geure kulturaren alde be ahal dana eta behar dana egiteko. Ez dau balio esateak badagozela eskolak, bada goela euskerazko telebisino bat, eta ez dakit zer be badagoela. Esatea legez, ba, euskerea berez-berez doala, Txorierriin ez

dala ezer apartekorik egin behar, kanpotik etorriko jakola euskereari indarra. Ze horretan hasi ezker bardin-bardin esan lei Txorierri be berez-berez doala, Diputazioaren eta beste batzuen planakaz. Eta badakigu hori ez dala holan. Edonork daki herri bakotxean bai udala, erakundeak, elkarteak... behar-beharrezkoak direla, eta eurek emon behar dabela lehenengo pausoa.

Gure herrietan obra ugari ikusten da batean bestean. Hain zuzen be, ikusten diren lanak egitera jotzen dabe-eta gehienetan gure agintariak: edo bideak direla, edo kaleak, edo poligonoak, edo espaloiak... Horreek izaten dira agintarien gustukoak, horreek ikusi egiten dira eta. Baina kulturea ez da ikusten. Ez. Kulturea igarri egiten da. Jendearen kultura mailea ez da plano baten ikusten, ez da proiektu batez konpontzen. Kulturea gauza handia da, alderdi asko hartzen dituena. Geure hizkuntzea da inportanteenetako bat, euskerea. Mikel Zaratek ondo ekian hori. Eta horregatik ibili zan jo eta ke gure kultura aberasten, geure hizkuntzan. Seguru pozik ikusiko leukela AIKOR! aldizkariaren lana be, ze aldizkari hau be, bere arloan, Txorierriko herritarren kultura mailea hobetzeko sortu da, euskeraren bidez.

Zoritarrez, pentsatu lei danak ez dabela holan ikusten, eta aldizkaria batzuen ahaleginari esker bizi da batez be. Bai, ahaleginak egin egin behar dira; baina kulturea ez da zerutik jausten dan bendizinoa; kulturako gauzak kostatu egiten dira, dirua be behar izaten da. Eta dabilenari lagundu egin behar jako. Ezpabere, akabua. Ea beste leku askotan egiten dan moduan Txorierriko udalek eta jendeak be kulturaren alde arean gehiago egiteko modurik seguru badaukiela. AIKOR danon esku dago.

Martxoaren 8a; emakumearen eguna



Lurdes Lasuen
(Txorierriko Mankomunitateko Euskara teknikaria)

Martxoaren 8an emakumearen nazioarteko eguna ospatuko dugu. Egun honen helburuetariko bat, XXI. mendean bagaude ere, emakumeen eskubideen errebendikatzea da. Baina beharrezkoa da emakumearen egun bat? Badago gizonaren egunik? Zeintzuk dira egun hau ospatzearen arrazoiak? Historia apur bat eginez egun honen nondik norakoak azaltzen saiatuko naiz. 1908ko martxoaren 5ean New York-en ehungintzan lan egiten zuten emakumeek greba bat hasi zuten soldata berdintasuna, 10 orduko laneguna eta edoskitzealdia eskatuz. Greba honen ondorioz Sirtwoot Cotton lantegian 100 emakume hil ziren lantegi horretako nagusiari leporatzen zaion sute baten ondorioz. Zergatik erlazionatzen den egun hau kolore lilarekin? Lantzen ari ziren ehunaren kolorea lila zelako. Beraz, egun hau oroipen bat da eta ez, askok uste duen bezala, ospakizun bat.

Gaur egun sexu bien arteko eskubideen berdintasuna errebendikatzen da; legeen erredakzioan ez ezik, baita beraien ezarpen eta emaitzetan ere. Aspektu hauek dira errebendikatzen jarraitu behar dugunak, berdintasunaren azken helburua oraindik ez baita lortu. Ahulezia hori langabezian, etxe barruko eta kanpoko lanorduetan, soldatan, lan mailetan, abusuetan erasoetan eta barretan islatzen da ondoen.

COPISTERÍAS PROPLANOS

- FOTOCOPIAS B/N Y COLOR
- COPIAS DE PLANOS GRAN FORMATO
- REDUCCIONES Y AMPLIACIONES DE PLANOS
- PLOTTEADO Y ESCANEADO DE PLANOS
- ENCUADERNACIONES Y PLASIFICACIONES
- IMPRENTA RÁPIDA (TARJETAS DE VISITA, FACTURAS,...)
- PAPELERÍA INDUSTRIAL. COPIADORA, PLOTTER, IMPRESORA, A3, A4
- CONSUMIBLES DE OFICINA. CARTUCHOS IMPRESORAS - TAX
- SERVICIO DE FAX, INTERNET Y AUTOCAD E INFORMÁTICA

- SERVICIO GRATUITO DIARIO A EMPRESAS DE RECOGIDA Y ENTREGA.
- RAPIDEZ Y SERVICIO AL MEJOR PRECIO

URDULIZ
Edificio Modinco de la Pella
TEL. 94.676.91.46

URDULIZ ALMIRAN
Igeitzera, 6 1ª Planta D
TEL.94.430.48.18

SONDIKA
ERREMENTERL 20 LOCAL
TEL.94.488.57.91

Email: Proplanos@Sarenet.es
Web: Proplanos.eukalnet.net



Zure eritxia agertu gura badozu, gutuneri atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritxi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, Aikor!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aretxalde 1, 48196 Lezama edo aikortxori@yahoo.es

Txorierrri : XXI. Mendeko Ezkerraldea?

Ikaragarria da azken hogeitau urteotan Txorierrriko bailarak izan duen hazkundera, industrian eta azpiegiturretan batez ere.

Baina hazkundera horrek garapena ekaritzen al digu Txorierriri eta txorierritarro? Nire ustez, ez.

XX. mendean, Bilboko itsasadarreko ibarrek, batik batik Ezkerraldeak, zenbaki ekonomikoetan izandako hazkundera erraldoiak ez zuen garapenik ekarri eskualde horientzat, hondamena baizik.

Orduan, gaur bezala, hazkundera ekonomikoaren aitzakiatzat, era guztietako ekimenak justifikatu ziren.

Geroago, 70eko hamarkadatik aurrera krisi larria etorrita, hazkundera zein etekinak desagertu ziren eta industrien alde egin zuten, baina kutsadura eta lurraldearen desituratzea bertan gelditu zen.

Olabeagan, Zorrotzan, Burtzeñan, Barakaldon, Erandion, Sestaon... behinola natura, bizitza eta aberastasuna nagusi ziren lekuetan, hondamen ekologikoa eta soziala baino ez ziren gelditu.

Baina Ezkerraldeetik alde egin zuena, zoritxarrez, azken urteetan Txorierrira datorkigu. Orain datorrenak aurpegi garbiagoa du (ezin ahaztu irudiaren sasoian bizi garela), baina orduan txikizioa eragin zuen eredu berbera ari da ezartzen gure eskualdean: kontrolrik, orekarik eta planifikaziorik gabeko hazkundera basatia.

Erandio, orain berrogei urte, eta Zamudio, orain, dira bailaran hazkundera basati honen adibiderik nabariena. Zamudio da, hain zuzen, azken hamarkadan Bizkaian gehien industrializatu den udalerria. Bidezkoa al da 3.000 biztanleko herri batek Bizkaian industria hazkundera mailarik handienetarikoa edukitzea? Bidezkoa al da Txorierrin 15.000 lanpostu industrial "eszedentario" egotea?

Eta Zamudiori buruz aipatutakoa aplikagarria da Derion edo Sondikan ere, eta, agian, laster Lezaman edo Larrabetzun ere.

Norbaitek esan dezake horrek dirua ekarriko diela Udalei. Eta nik diot: dirua zertarako? Enpresa horientzat errepide eta aparkalekuak egiteko akaso? Industria horiek utziko diguten kutsadura arintzeko? Edo agian gure baseritarrei subentzionateko, behin beraiek landutako lur guztiak orain nabe industrialek eta kamioiek okupatzen dituztelako?

Ez da garapenaren aurkako alegatua, ez. Aldiz, Txorierrirako, neure herri-rako, garapenik egokiena nahi dut. Horregatik, nire iritziz, bide txarretik goazela esan behar dut. Txorierrin gertatzen ari den hazkundera eta kontzentrazio industrialera (eta berarekin datozen autopistak eta mota guztietako azpiegitura erraldoiak) ez da behar duguna.

Eredu hau kaltegarria da Txorierrirantz, eta aldatzeko premian gaude, edo laster oso garesti ordaindu beharko dugu.

Garapen egokia behar dugu, eta horretarako planifikazio orekatua, lurraldeko erabilera anitza (erresidentziala, industrial, nekazaria, tertziarioa...), ingurumenaren babesa eta nortasunaren potentzialidadeak berraurkitzea behar ditugu, kontzentrazio industrialera eta azpiegituren pilaketa baztertzuz.

Zer egin eta zer esan badaukagu. Gure herrietan etorkizun duina nahi badugu geure seme-alabentzat, ezin gara begira gelditu.

Izan ere, Lezaman alkateak kontratatutako teknikoek egin omen duten arau subsidiarioen proiektuaren zain gaude. Nire informazioaren arabera, ager daitezken ekimen batzuek (Eguzkitza, Ibargain...), kritikatu dudana eredu eta joera kezkarria areagotu lezakete, mugagabeko hazkundera industrialera ahalbiderratu eta Lezamaren beraren etorkizuna kolokan jarriko luketelako.

Kasu honetan eta antzekoetan lezamarrok eta txorierritarrok gure etorkizuna arrotzen esku eta erabakietan utzi ez badugu nahi, badakigu nondik jo behar dugun.

Partehartzea eta konpromisoa hemen ere ezinbestekoak ditugu.

Adi Lezama eta Larrabetzu: zurrumurruak diote bi herrien arteko korridoreko irteera parean kamioientzako azpiegitura erraldoia -500.000m²- egin nahi dutela. Utziko diegu?

Ekidazutarra

LEANDRO LANDETA



HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Oiz Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO



HARAGITEGIA ALBERTO
Txorierrri etorbidea, 5
Telf. 452 08 25
48016 ZAMUDIO (Vizcaya)



ARTIZAR
MARKOA JATZEKO TALEERRA

Judo Ajerik, 3 48190 SONDRICA
Tel. 94 452 01 50



LAUBURU

HERRIKO PLAZA, 2
48160 DERIO - BIZKAIA TEL. 94 454 52 03



LAPIKO/s.l.
Enbatazko enbatazko -Enbatazko
ZUZLAK

Gandia, 07 48190 BILBAO
Tel. 94 452 01 50

Zahar etxe bi egingo dira Txorierrin

Bizkaiko Foru Diputazioak zahar egoitza bi eraikiko ditu, bata Sondikan eta bestea Zamudion. Sondikako egoitza babes ofizialeko etxebizitzak dauden lekuan egingo da, Errementeria kalean hain zuzen ere. Obrak Udalak utzitako lokaletan egin dira eta gutxi falta da amaitzeko. Zahar etxea 1.182 metro koadrokoa izango da eta 30 lagunentzako tokia egongo da. Gainera, bertan 15 langilek jardungo dute. Diputazioak 1,6 milioi euro jarri du proiektu honetarako.

Beste alde batetik, Zamudioko Torrelarragoiti industrialdean beste zahar egoitza bat egingo da. Berau 6.000 metro koadrokoa izango da eta 120 lagunentzako tokia egongo da. Gainera, 75 langile kontratatuko dira eta eguneko zentroa ere

jarriko da. Lurrak Zamudioko Udalak emango ditu eta Diputazioa zahar etxea

eraikitzeaz eta mantentze lanez arduratuko da. Aurrekontua 9,5 milioi eurokoa da.



Estreinatu da Zamudion futbol zelaia barria

Edo hobeto esanda, futbol zelai barriztua, izan be, betiko San Martin futbol zelaia da bedar artifizialez jantzi dana. Instalazioak inguratzen dituen sarea jartzeko obrak amaitu ez diran arren, zelaia bera amaituta dago. Ikusita S.D. Zamudioko ekipo gehienak aldi baterako erabili behar izan daberen Derioko zelaia ez zegoela baldintzarik onenetan, batez be, aurtengo negu gogorraren ondorioz, aurrerago estreinatu behar izan da.

Zelai barriko lanak 540.000 euroko (90 milioi pezeta) aurrekontua izan dabe.

Diru kopuru horretatik Zamudioko Udalak 240.000 euro ordaindu dauz. Gainerako guztia BBK-k eta Bizkaiko Foru Aldundiak ordaindu dabe, erdi bana, erakunde horreek biok Bizkaiko futbol zelaietan bedar artifiziala jartzeko sinatutako akordioa dala medio. Bedar artifiziala ipinteko lanak egin dituna Frantziako enpresa bat izan da, holango lanetan eskarmentu handia daukana.

Horrez ganera, zelaia handitu egin da homologatutako neurrietara egokitzeko, egurrezko harresia altxatu da zelai inguruan, eta argi sistema barriztatu da.



Zerurena Jatetxea

Errementeri Kalea, 22
Tfno.: 94 453 57 54
Fax: 94 453 58 31
48150 SONDIKA (Bizkaia)

HORTZ - KLINIKA

Jasone Azurmendi Garai

Belaskain Plaza, 1 - 1º A
DLRJO

Teléfono: 944 545 705

San Juan Hartz Klinika




- . Implantak eta kirurgia
- . Odontologia orokorra eta unibertsu
- . Hartz-uzteak
- . Periodontak
- . Txoko hertsu-erretxak

ASURURI TXARTELAK
Aldaketa Orokorreko Hartz-uzteak

Jatorri: Alameda 2 - Zentroa: Alameda
Tel: 94 431 70 25

GAMINIZ
RESTAURANTE



AITOR ELIZEGI

Zamudion Parke Teknologikoan
Haberria 212
48101 ZAMUDIJO BIZKAIA

Tel: 94 431 70 25
E-mail: gaminiz@euskaltel.net
www.gaminizsabeandio21.com

Plaza berria inauguratu dute Larrondon

Joandako otsailaren 7tik, Loiuako Larrondo auzoko lagunek aisialdirako enparantza berria dute, Eusko Jaurlaritzak martxan jarritako Izartu programari esker. Programaren helburua herrietako hainbat gune berpiztea da.

Jaurlaritzak 1.008.860.96 euro eman dizkio Loiuako Udalari herrian inbertsioak egiteko bost urteko epearen barruan. Gainera, Udalak 360.000 euro jarri ditu. Dirua hizpide dugula, plaza eraikitzeko aurrekontua 480.000 eurokoa izan dela aipatu behar da.

Enparantza berriak 5.000 metro karra-tu ditu eta inguruan arbolak, bankuak eta kale-argiak jarri dira. Bitxikeria lez, iturriak eguzki-erlojua duela azpimarratu leiteke. Gainera, hainbat ekitaldi egiteko lekua ere izango da.

Erabilera askotarako gunea

Lasterrera begira, plazaren ondoan erabilera askotarako eraikin estalia egite-



ko asmoa dauka Udalak, eta antzerki, jolas zein kirolerarako tokia izango da. Eraikin hori egiteko lehiaketa apirilean atera eta lanek 2005erako bukatuta egon beharko dute. Izan ere, urte honetan Izartu programa dela-eta sortutako ekimen guztiak amaitu beharko dira.

Eraikinak 8.000 metro karratu izango ditu eta egingo den inbertsioa gutxienez 800.000 eurokoa izango da. Hala ere, milioi bat euroko inbertsioa egiteko prest dago Udala.

Txorierriko Guraso Elkarteak ikasketaz eta kirolaz arduratuta

Otsailaren hasieran Txorierriko Eskoletako eta Institutuko Guraso Elkartearen ordezkariek bildu dira. Agendan bi gai nagusi. Alde batetik, Udala Liburutegietan tutore laguntzaile figura jarri gura da, astearen ordu batzutan ikasleei lagundu ahal izateko euren lanetan. Udala batzuetan gestioa egin da, ideia ona iruditu zaie, baina martxan jartzea falta da.

Beste gaia eskola-kirolarena da. Gurasoen ikuspegitik, lehen hezkuntzan nahikoa zainduta dago, baina 12-18 urte bitartea guztiz abandonatuta dago. Ikasleak Institutura doazenez, herriak ez dira arduratzen eta Derioko Udalaren iritziz bera ez da arduratuko Txorierriko guztiko kirolaz. Gurasoen ustez, urgentea da, Txorierriko udalek elkar hartuta, edo Mankomunitatearen bidez, adin horretako kirola antolatu eta suspertzea. Ikasturte honen amaierarako zerbait aurreratzea espero dute.

Saharara bidaltzeko janari biketa Loiu

Loiuako Udalak antolatutako Sahararekin elkartasunezko karabana erantzun handikoa izan da. Loiuarren elkarkidetzari esker, udalerrriak honako elikagai hauekin lagundu dio saharar herriari: 116 kontserba-lata, 31 kg. esne-hautsa, 29 kg. azukre, 45 litro olio, 127 kg. egoskari eta beste hainbat gauza.

Azkenik haurtzaindegia Larrabetzun

Gurasoen taldearen ahaleginen ondorioz, Larrabetzuko alkateak iritzia aldatu eta, antza, haurtzaindegia izango dute azkenean herrian. Tomas Ordeñana alkatearekin batzarra egin ostean, pozik agertu dira gurasoak. Izan ere, 0-2 urte bitarteko umeen gela berriak egokitzeko hainbat aukera proposatu zaie Udaletik. Beste alde batetik, behin betiko zentroa martxan jarri arte, enpresa pribatu batek behin-behineko zerbitzua eskaintzeko aukera aipatu zien alkateak batzarrean.

Korrika 13 aurkeztuko da Txorierrin

Martxoaren 1ean, eguerdian, Korrika 13 aurkeztuko da Parke Teknologikoan.

Egun eta toki berean,

Korrika
Kulturalaren barruan,
Euskal
Herriko film laburren



emanaldia izango da, 11:30etan. Bertan, film labur hauek izango dira ikusgai: Koldo Almandozen Belarra, Asier Altunaren Topeka, Ane Muñozen Basurde, Manu Solaresen Dordoka uhar-tea, Aitzol Aramaioren Terminal eta Bego Vicarioren Haragia. Euskaltzale guztiak gonbidatuta daude.

HOTELA
JATETXEA
KATEA + BARRA
Olibar C/Argosourbilla
Auzoaga s/n. 05
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefonoa: 94 452 41 57
Fax: 94 452 41 36
E-mail: hotsi_ama-cruza@plazaik.ea

ERREKA **ONDORIO**
ETXEA
Eguneko menua, asteherriko menu berezia, korts, espeseri bereziak, jausitxoak, berrien bereziak
Auzoaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Telefonoa: 94 452 14 19
Fax: 94 452 26 29

CAFETERIA
iAZi
Eguneko menua eta Menu berezia
JATA KALEA, 2 - Telefonoa 94 454 29 56 - DERIO (BIZKAIA)

BAR TXIKI
Lahedakari Leizeola, 6
48170 ZAMUDIO - Bizkaia
Tel. 94 452 04 68

Restaurante
SAN ISIDRO
KORTXUAK, BATAKAK, JAUNARTZEAK
Telefono 94 451 0708
Fax 94 451 0138
Mugailu, Derioa, n. 25
48100

LEJARRENE
JATETXEA
GARAIOLTZA, 102 - TEL: 455 65 46
LEZAMA (BIZKAIA)

Etxebizitzen zozketa Zamudion

Udalak Uribebarrin dituen etxebizitzak zozketaz adjudikatuko dira martxoaren 1ean. Zozketa udal kiroldegian egingo da, goizeko bederatzietan. Beste alde batetik, Udaletxeko iragarki taulan dagoeneko ikusgai daude zozketan parte hartzeko onartuak izan direnen izenak eta bakoitzari emandako zenbakia. Guztira 16 etxebizitza adjudikatuko dira

euren trasteleku eta garajeekin; haietatik 8ren jabetasuna zozketatuko da eta beste 8 errentan emango dira, nahiz eta erosteko aukera egon. Lehenengo sailerako 42 eskari onartu dira eta bigarrenarako 82. Beste etxebizitza bat egon da elbarrientzat gordeta, baina ez da zozketatuko, ez direlako onartu hartarako eskariak.

Sutondoan elkarteak emakumeen astea ospatuko du martxoan

Derioko Sutondoan elkarteak hainbat ekitaldi antolatu ditu, martxoan Emakumeen Astea ospatzeko. Horrela, hilaren 4an Emakundeko Txaro Arteagak Como ha influído el asociacionismo femenino en el avance de las mujeres hitzaldia emango du Kutur Aretoan, arrastiko 5etan.

Martxoaren 6an, arrastiko 7etan, Oihulari Clown antzerki taldeak


Molestias Clownicas lana aurkeztuko du Institutuko Aretoan. Sarrera doakoa izango da.

Azkenik, Emakumeen egunean, martxoak 8, Udaletxe ondoan bilduko dira eguerdiko 13:15etan.

Ekintza horiek antolatzeko, Emakunderen eta Udalaren laguntza izan du Sutondoan elkarteak.



“Esadazu euskaraz” kanpaina Txorierrin



Txorierriko Euskara Zerbitzuak “Esadazu euskaraz” kanpaina jarri du martxan, 2002an seme-alabak izan dituzten gurasoei zuzenduta.

Kanpaina honetan, gaur egun euskarak daukan garrantzia azaltzen da eta aholku batzuk ematen zaizkie guraso euskaldunei nahiz erdaldunei. Aholku horietan gomendatzen zaie euskararen arloan zein gauza hartu behar diren kontuan eta zelan hobetu behar den euskararekiko harremana.

Behorra salgai
(pottoka tamainokoa)
hezia eta mantsoa,
paseotarako
aproposa

94-452 1077 (gaubez)

Bar - Restaurante

Balgerri

1. gunean irekia
ilena berezia
Preparazioa lasterki

Poñg. Industria/ Serviziora, Parcela 6 - Nave 3 - 48170 (ZAMUDIO)
Tel. 944 523 853 • Fax 944 523 176

ATARRABI

ETXEBIZITZA, 14 - 48150 Sondika
Tfnua.: 944 521 928

PATXI COOP. T.X.
Concesionario Zamudio

Mahou
Carlsberg

Tfn.: 94 452 25 87
970 87 17 14
Udaldeguren Induslaria 1
48170 ZAMUDIO - Bilbo

CAFE-BAR

BIDE-GORRI

Ero askotako pintxoak - Plator konbinatuak
5. Oribialdeko sarrera

Torbán Kalea, 9
48170 ZAMUDIO (Bilbo) Tel. 94 452 26 75

Amaitetako
Atertu las 7 días de la semana

- Eguneko Menuak
- Kuzinatzeak
- Olibaskoa Erreta
- Karta Zabalra

Umbu Kalea, 1 Bajo - BUIO
Tfno. 944 510 106

Esku-pelota: Lezamako XIV. eskualde txapelketa

Testua eta argazkia: Lezamako Pelota Alkartea

Urtarrilaren 24an Lezaman jokatu ziran hainbesteko tradizioa daukan "XLIV. Eskualde Txapelketako" finalak. Lehenengo partiduan, gazte mailan, RETEGI (Retegi II handiaren semea) eta URRIZELKIK, biak nafarrak, 10ean itxi ebezan AMANTEGI abadiñarra eta URIARTE usansolotarra. Nabarmena izan zan bikote nafarraren nagusitasuna. Amantegik ez eban bere maila erakutsi eskuetako minagaz jokatu ebalako, antza. Azpimarratzekoa izan zan Urrizelki atzelariaren lan bikaina eta Retegiren taju polita.

Bigarren partiduan (1. mailakoa) hauxe izan zan emoitza: EGUSKIZA (Zornotza) eta ERAUNSKINEK (Lemoa) 22 / ANTXIA II (Abadiño) eta AJURIAK (Galdakao) 6. Launako bardinketatik aurrera, hau be kolore bako partidua bihurtu zan, aurrekoaren antzera: oposizio eskasa galtzaileen partetik. Finaleko pelotaririk onenari emoten jakon garaikurra Eguskizarentzat izan zan. Datorren urtera arte.



Babes ofizialeko 120 etxebizitza eraikiko dira Loiuun

Eusko Jaurlaritzak babes ofizialeko 120 etxebizitza inguru eraikiko ditu Loiuuko Larrondo auzoan. Lanak laster hasiko dira eta 2005. urterako amaituta egotea espero da. Inbertsioa 1,5 milioi eurokoa izango da, gutxi gora behera.

Zortzi etxe-multzok osatuko dute urbanizazio berria. Bakoitzak hiru solairu (bata behekoa izango da) eta teilatupea edukiko ditu. Hala ere, etxe-multzo bateko beheko solairuan etxebizitzak barik merkataritzarako lonjak jarriko dira. Etxaurre batetik bestera 28 metro egongo dira.

Etxebizitzak gela batekoak, bikoak edo hirukoak izango dira, eta denek izango dute sukaldea, komuna eta egongela, baita

garajea eta trastelekua ere. Gainera, hiru gelatako etxebizitzek bi komun edukiko dituzte.

Urbanizazioak 42.000 metro karratu hartuko ditu guztira. Bertan berdeguneak eta bataz beste 17 metro izango duen oinezkoen alderdia atonduko dira. Urbanizazioa plaza berriaren eta egingo den erabilera askotarako eraikinaren ondoan kokatuko da.

Interesatuak Eusko Jaurlaritzako Etxebide zerbitzuan eman dezakete izena. Loiuun erroldatuak izango dute lehen-tasuna, eta gero Txorierriko beste biztanleei luzatuko zaie eskaintza.

Bar TRIPPY
ZURE GIRORIK ONENA

Gura baduzu ondo pasatu, musika ona entzun eta futbolinean jokatu, etorri zaituz Trippya, Darioa

Behoko Kalea Buzo
DERIO

UMEENTZAKO MODA

Tximeleta

Lernikako Arbola, 8
Telefonoa: 94 454 14 35
Fax: 94 454 38 26

48160 DERIO
Bizkaia

Ganix
OHINETAKOAK - OLASABARRA

Gernikako Arbola Etorbidea, 2
(surrera Goiko Kaleatik)
Tfnos.: 94 454 20 13
48160 DERIO (Bizkaia)

LEKE'S S.L.R. **JATETXEA**

LEKERIKA BILBAO

San Martin, 1
Telefonoa: 944 542 834

48100 ZAMUDIO
Bizkaia

Ne-apaindegia

M^a Antonia Llodio

Tximeleko etorbidea, 8
Tel.: 94 452 02 70

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

LEIRE BEGOÑA

ILEAPAINDEGIA

UNISEX ILEAPAINDEGIA
SOLARIUM BERTIKALA
ESTETIKA
ORDUTEGI JARRAITUA

MUNICIALE ETORBIDEA, 20 - TEL.: 94 454 26 32 DERIO

Loiuko nagusiak ere sarean konektatuta

Nagusiweb ikastaroan Internet ezagutzeko aukera izan dute 55 urtetik gorako herritarrek.

Eusko Jaurlaritzak Konekta Zaitetz (KZ) guneak jarri ditu hainbat herritan, herritarrei teknologia berriak ezagutzera emateko. Hartarako eskaintzen diren ikastaroen artean Nagusiweb dago. Berau 55 urtetik gorako pertsonentzat prestatuta dago eta Interneti buruzko oinarrizko ezagupenak ematen zaizkie. Loiuko KZ gunean, arreta handiz jarraitu diete irakaslearen azalpenei. Ikastaroa amaitu ondoren, jakin gura izan dugu zelan moldatzen diren sarean.

Nagusiweb ikastaroan izena eman duten zortzi lagunek aukera izan dute Google bilatzailea, web orriak, posta elektronikoa eta txat-a ezagutzeko. "Hasieran, nahiko ezkor agertzen ziren", azaltzen du Gema irakasleak, "Baina, ikasteko interes handia daukatela erakutsi dute. Batzuk goizago etortzen ziren, aurreko egunean ikasitakoa erreparasatzeko", ziurtatzen du. Izan ere, haiei ere jakin-mina sortu zaie Internet dela eta.

"Geure burua oraingo sasoiara egokitu behar dugu" erantzuten dute, galdetzen zaienean zergatik eman zuten izena ikastaroan. "Etxean, nik izan ezik, beste guztiak zekiten Internet erabiltzen", komentatzen du Isabelek, "Orain ordenagailua erabiltzen utzi beharko didate".

Gehienentzat ordenagailua gauza berria izan arren, normalean izaten diren arazoak baino ez dituzte eduki. "Badakizu, posta elektronikoa erabiltzean, arropa edo puntua idaztea ahazten zaizu, baina besterik ez", dio Rosaliak.

Gauza harrigarria

Haien esanetan, ikastaro honek beste mundu baten berri eman die. "Hau gauza harrigarria da, Interneten nahi duzuna topa dezakezu eta!", harritzen da M^o Angeles.



Hasieran Loiuko nagusiek buruhauste bat baino gehiago izan zuten internetekin.



Ikasleek arretaz jarraitzen diete irakaslearen azalpenei.

Makina bat web orri bisitatu ondoren, mezu elektronikoak bidali dizkie seme-alabei eta lagunei. Elvirak, berriz, bere abesbatzaren web orrian sartu eta bere argazkia aurkitu du. Hura ilusioa! Gainera, nahikoa ondo txateatzen dute eta batzuek lagunen bat ere topatu dute. "Dena dela, ni ez naiz fidatzen, edonor egon daiteke hor sartuta... Baita neu ere!", barre egiten du Andonik.

"Orain 40 urte, telebista pentsaezina zen niretzat. Pentsa ezazu Internet!", esaten du Mercedesek, "Ikaragarria da gutun bat bidali eta di-da batean heltzea, edo ordenagailuan egunkaria irakurtzea! Benetan!".

"Mundu guztiak eman beharko luke izena holako ikastaroetan", gomendatzen

du Abelinok, "Nagusiok entretenitzeaz gainera, behar-beharrezkoa dugu hainbat gauza ikasteko". Haren ustez, Internet erabiltzen ez da batere zaila, "gura izanez gero, edonork ikas dezake", gehitzen du.

Hala eta guztiz ere, haien iritziz, oso laburra izan da ikastaroa. "Hamar orduko ikastaroa egin dugu, baina denbora gehiago beharko genuke sarea hobeto ezagutzeko. Horrexegatik, ikastaroa luzatzeko eskatu gura diogu Udalari", azaltzen du Jacintok. Edozein modutan ere, ziurtatzen dute sarean konektatuta jarraituko dutela, dela ikastaro baten bidez dela euren kontura.

Testua eta argazkiak: Itxaso Marina

1928-ko Santa Ageda

“Los cantos serán inofensivos y morales”

Testua eta argazkia: Amagoia Guezuraga

Holako baldintzagaz urten ziran Emeterio Leginazabal eta lagunak Santa Ageda abesten 1928an. Zamudio eta Derio udal bakarrean egozan orduan bat eginda, eta Emeterioren nahia Derio Club Deportivo-rako dirua batzea zan.

Kultur ekintza hau eta Santa Ageda koroak herrian tradizio handikoak zirala eta, orduko alkate Juan Zamakonak ontzat hartu eban eskaria, baina hori bai, “...advirtiendo que los cantos serán inofensivos y morales”. Beste Emeterio batek (Emeterio Urkiza) dinosku lez, 40ko hamarkadaren hasieran, Zamudioko kluba sortu barri, kintoak eta kinto ez ziran beste batzuk urten ziran Santa Ageda kantetan (Zamudioko klube-

rako diru eske). Lortutako diruagaz Arboledan bazkaldu (angula eta guzti, oraindino 25 pezetako zorra hor dabil

dantzan), ondoren Vidalen eta Agustinenen zer edo zer hartu, eta azkenean kluberako... 200 pezeta.



Hona hemen Zamudioko “tropa”: Emeterio Urkiza, Jose Aurrekoetxea, Candido(Aginakoa), Manuel Bolunburu, Jesús Urkiza, Rufino Aurre, Luis Susunaga, Santi Soba, Bautista Aurrekoetxea,.....

2003ko Santa Ageda. Neskak be kantari

Lehenagotik be Agate Deunari koplak kantetako ohitura baegoan be, kintoen tradizioa gerra ostetik datorkigu. Urte batzuk dira soldaduzkea kendu zanetik, baina geure inguruko herri batzuetan (Larrabetzu, Lezama eta Zamudion) etxerik etxe kantetan dabiltzanak adin horretakoak dira. Iazko nobedaderik aipagarriena izan zan neska bi be joan zirela Larrabetzuko taldean. Aurten, Zamudion be beste bi animatu dira. Igone eta Ziortzak esan deuskue gogorra baina sekula ahaztu ezteko moduko eguna pasatu ebela. Pozik dagoz kantetan urtetako hartu daben erabakiagaz, eta hurrengo urteetakoei, bitan pentsatu barik, parte hartzeko gonbitea egiten deusie, ez dira damutuko eta. Adierazo deuskuenez, bai

taldekideen laguntza zein herritarren harrera ona izan dabe, ez dago ezelango arrazoirik mutil eta nesken arteko bereizketa egiteko, batera ikasi, hazi eta hezi

direlako. “Agate Deunaren bezpera egunean herritik koplak kantetan urtetako ohitura mantentzea da garrantzitsuena”, azpimarratu dabe.





**LIBRERIA
 SONDIKA
 LIBURUDENDA**

ARTE EDIERRAK ESKULANAK, E.A.

JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN

Fotokopiak, knadernaketa, plastifikatuak,
 prentsa, aldizkariak, liburuak,
 paperyintze eta eskularrak

Mikel Zarate, 2 Tel. / Fax: 94 453 16 77
 48190 SONDIKA (Bizkaia)

 LIBURUDENDA PAPERDENDA
ZAMUDIO

Garbice kalea, 5
 Telefono / Fax: 94 452 29 10 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)


luz zamudio
 ARGI APARATUAK

Milenañe kalea, 1 (j. ant) Telefono eta Fax: 94 452 11 60. 48178 Zamudio (Bizkaia)

ZAMUDIOKO ESTANKOA

Tabakoak, tinbrea eta opariak

Tallerreri kalea, 6 ZAMUDIO
 Tfnoa: 94 452 12 73

Albaitaritza


HENAR ORTUONDO
 ALDAITARIA

Mikel Ortuondo Navea
 Tfnoa: 94 454 28 21
 ANTAN JIURRI (Bizkaia)

DERIO I. ARRIATZAK 24 orduak.
 Tfnoa: 94 480 28 66

Irratiko mundua

Irratiko erlojua beti norbere aurretik. Goizaldeko seiak. Hasi dira mekanismoak olioztatzen. Erredakzioan sartu eta eguzkiaren besteko erlojua, alkarren atzean zein arinago dabilzan orratz biekaz.

Ordenagailua ezinbesteko tresna. Lehenbailehen EFE agentziak igorritako albisteei emoten jake errebasoa. Interesekoak, gaurkotasundunak, aukeratu eta inprimatu; eguneko prentsa kontsultatu –Egunkaria, Deia, Gara, El Correo, El Mundo, besteak beste–. Internet bere ezin ahaztu daik egun euskarra. Aspaldiko telefonoak berak eguna amatatu orduko zenbat mezu ete dakar?

Behin albisteak lokalizatu, itzuli, atondu direnean, prentsaurrekoetara jotzen da, eguneko artean aukera eginik. Artean, baina, norberari dagokion saioaren zirriborroa moldatzen da, kasu honetan, Kultura Saioa. Mahai gainean batu diren albistee-tako protagonistei alkarrizketak egiten jakez, zenbakia zelan edo halan lortuta.

Uso mezulariek irriaren egoitzara ekarritako informazioa baliagarri-baliagarria izan arren, urten bere egin behar da erredakzinotik.

Ttiti-tapaka Bilboko urian. Erloju orrazak ezin harrapa badira, taxia edo metroa edo tranbia. Beti bere, gune informatiboak helburu. Bizpahiru prentsaurreko goizero. Behin Udaletxean, sarri Foru Aldundian edo Jaurlaritzaren Gran Viako egoitzan, baita SGAEn (Autore eta Editoreen Sozietate Orokorrean), musika gorabeherak direnean; erakustazokan data jakinetan; Euskaltzaindian; museoetan... Bigarren planoan, Arriaga antzokia, La Bolsa nahiz hotelak –Ertzila, Carlton...–.

Prentsaurrekoetan, kazetari aldra, mini-diska batean, boligrafoa bestean. Abots kortea ezinbesteko da albistea antenaratzeko. Horrextara emoten jake emon bere norbere erredakzinoari sinisgarritasuna.

“Aspaldiko telefonoak berak eguna amatatu orduko zenbat mezu ete dakar?”

Arazoa hemen agertu ohi da, prentsaurrekorik gehienak gaztelez dira-eta. Abots kortee-tarako erarik ez denean, zoritxarreko kazetaria!

Barriro ttiti-ttapa, zapatilak astinduz irratira. Estudioan, abots kortea zatitu, daukagun programa berezian. Ordenagailuan

erredakzinoa txukundu, pertsonaiaren berak hortxe tartekatuz albistea prest egon daiten. Estudioa joan eta zuzeneko irakurketa argia.

Entzuleak albisteak eroso, labatik era jasotea izango da, azken baten, irratiko profesionalen gogoia, merkatuan dagoan irratia eskaintza zabalean, euskara bizian Bizkaia Irratitik entzutea.

Testua eta argazkia: Udane Goikoetxea Bilbao (Bizkaia irratiko esataria)



Txorierriko gazteak irratigintzan

Ordu biz -lauretatik seiretara- ikasleek kazetari izateko aukera izaten dabe eguaztenteroko irratia tailerlean. Ahozko euskara lantzea helburu dalarik, irratigintzan ibiltzen gara. Albisteak landu, irakurketa hobetu, alkarrizketarako doaia menperatu... Martian hasita institutua alaitzeko prestaketak egingo ditugu. Izan be, bozgorailuak ipinteko proiektua abian da.

HIRUKOTE
BURDINA ETA FORJA
PABLO LEZKANO


- Forjaketak artistikoa
- Metalakako erakuntzak
- Altzariak
- Apainketak artistikoa
- Partzial jarriztuak
- L etoi herdoiltza
- Tiraiozko lanak

Erletxe industrialdea
K. plataforma, 3. eraikuntza, 20
Tel: 661 242 443
46960 Galdakao

HARATEGIA
J. ELORRIAGA

Etxeko berezitasuna: bertoko okela

Instituzioa, Zilindro, 104.444.60.41 1.600.410721



“Telebista-programetan eskaintzen digutena ez dugu beti sinistu behar”

Lezamako neska honi Basetxe saiora joateko aukera halabeharrez ailegatu zitzaion. Lehenengo programa zen eta lehiakide batek huts egin zuen azken momentuan. Berarekin harremanetan jarri eta, pentsatu barik, maleta egin zuen ETBren azken abenturan parte hartzeko prest. Zazpi egunetan zehar bere indarrak eta trebetasuna neurtu behar izan zituen beste zazpi lehiakiderekin. Azkenean, sasoi onean dagoela erakutsi zuen finalera ailegatuz. Amaiak esperientzia honen inguruan hitz egin digu

Zelan gogoratzen duzu Busturiako baserrira ailegatu zinen eguna?

Furgonetatik jaitsi bezain pronto, grabetan hasi ziren. Ez ziguten inolako azalpenik eman eta, gainera, lehenengo proba egin behar izan genuen.

Zertan zetzan proba hori?

Baserrira sartu ahal izateko giltza aurkitu behar genuen. Giltza kutxazain baten barruan zegoen eta kutxazaina hare-multzoz batean ezkutatuta. Bakoitzari kaskoa, pala eta poltsa eman zizkiguten... Aurkezlearen laguntzari esker topatzea lortu genuen azkenean.

Finalera joan aurretik, hiru egun eman zenituen baserrian. Zelan moldatu zinen?

Ez nuen aspertzeko astirik izan. Egun osoa ematen genuen grabetan, probak egiten... Ni joandako programak orain ematen dutenarekin ez duela ezer ikusirik aipatu beharra dago. Bi saiotan egin zen. Lehenengotik irabazlea eta faborittoa atera ginen. Egun batzuk geroago beste baserrietako lehiakideekin parte hartu genuen finalean.

Saio horretako irabazlea izan zinen...

Bai, azken probako irabazleak aukeratu ninduen finalera joateko proban erraz irabaziko nuelakoan. Koilara batean arrautza bat eramanez aldapan gora igo behar genuen, ni trebeagoa izan nintzen eta irabazi egin nuen. Gero nirekin finalera joate-

ko beste pertsona bat, faborittoa hain zuzen ere, aukeratu genuen denon artean.

Zelan konpontzen zinen jendearekin?

Oso ondo, ez genuen inolako arazorik izan. Beraz, jendea kanporatu behar izateko orduan bozkatzea nahiko gogorra zen.

“nahiko burugogorra naizenez, arazoren bat izan arren ez nuen inoiz etsi”

Finaleko saioan lau egun egon zineten. Tentsioak agertu ziren?

Bikote batekin arazo bat izan genuen. Mutil batek bizikletan irabazi zuen eta beste neska bat azkena geratu zen. Irabazlea zenez, mutilak kaleratu behar zuen gitariko bat. Orduan, neska aukeratu beharrean, nirekin etorritakoa kanporatu zuen. Gure ustez, ez zuen zuzen jokatu eta horrela adierazi genuen. Beranduago elkarrekin zebiltzala enteratu ginen.

Zein proba mota egin behar izan zenituen?

Denetarik, arku-tiroa, puenting, ur azpian ahalik eta denbora gehien eutsi, eskalada...

Nolakoa izan zen finala?

Ni beste neska baten kontra hondartzan. Elastikozko goma batez lotu gintuz-

ten. Hondartzaren erdian zeuden makila batzuk hartu eta saskietan sartu behar genituen. Berak irabazi zuen.

Zelako aurpegia geratu zitzaizun?

“Honaino ailegatu, hainbeste ahalegin eta ...” pentsatu nuen. Gainera, saria, bidaia bat Egiptora, gurasoei eman nahi nien.

Baina, lehenengo fasea irabazteagatik beste sari bat eman dizute.

Bai, Pirinioetara joango naiz arrisku-kirolak egitera, oraindik pentsatu behar dut noiz. Dena dela, bi kasuetan guk bidaia ordaindu behar dugu. Agentziara joan nintzenean enteratu nintzen.

Zelan ikusi duzu zure burua saioan?

Ondo, kirolaria izateaz gain, nahiko burugogorra naiz. Hori dela eta, arazoren bat izan arren ez nuen inoiz etsi.

Zer ikasi duzu esperientzia honetatik?

Telebista-programetan, halako saiotan behintzat, eskaintzen digutena ez dugula beti sinistu behar. Programa honi dagokionez, etxean ikusi dudanak ez dauka zer ikusirik benetan gertatu zenarekin. Adibidez, batek proba bat irabazten bazuen besteok, batzuetan, ez genuen proba hori amaitzen. Telebistan ikusita, ematen zuen konpetentzia handia zegoela, baina ez zen egia. Haiek irudiak hartu eta nahi duten muntaia egiten dute.

Testua eta argazkia: Itxaso Marina

Gurean izan da

Kike Amonarriz

Gazte hizkera nola eraiki

Urtarrilaren 29an, Kike Amonarrizek hitzaldia eskaini zuen Derioko kultur aretoan, "Euskaraz dibertitzeko manierak" izenburupean. Hitzaldi hori Euskal Herrian egingo den azkenetarikoa izan da.

Elurra zela eta, Asisko Urmeneta ezin izan zen etorri, baina Kikek, bakarrik egon arren, ondo baino hobeto bete zuen egin beharra, jendeari barre algarak behin eta berriz eraginez.

Testua: Txorierriko AEK / Argazkia: Asier Mentxaka

Euskaldunok Estatu Batuak deskubritu genitueneko adibideak ipintzen hasi zuen saioa. Teoria hori frogatzearren, honakoak bota zituen: garai hartan euskaldunen barkua lehorreratu orduko, kapitainak "Hor egon!" esan zien bertan joan zirenei, eta horrela, OREGON izendatua izan zen. Joan zirenetatik gehienak baserritarrak zirenez, batzuk abeltzaintzan aritu ziren, mendebaldeko gorengo lurretan gelditurik, eta ganaduari hainbeste oihu "Aida! Hooo!" esaten zioten; horren ondorioz, lurralde hori IDAHO izenez ezagutzen dugu gaur egun, haren esanetan. Halako teoriekin jarraiturik, beheragoko lurraldea berdina zenez eta bizkaitarrak zirenez, - "Lurralde hau aurrekoaren neba da" esan zuten eta handik aurrera NEVADA izenez ezagutzen dugu lurralde hori. Eta hala jarraitu zuen benetako antz harrigarriak topatuz eta entzuleen barre zantzoak eraginez.

Aurreikuspenak egiteko euskarak duen ahalmenaz ere hitz egin zigun. Esate baterako, hil zuten Estatu Batuetako presidente hark euskaraz jakin izan balu, ikusiko zuen bere abizenak ematen zion abisua: "Jon ken hadi!" eta horrelako beste hainbat adibide.

Animaliek hizkuntza desberdinetan egiten dutela berba frogatu zuen; oilarrak gazteleraz kikiriki egiten badu, frantsesez cöcöricö baina euskaraz kukurruku egiten du, denok dakigun moduan.

Hainbat arlotan, sexu kontuetan besteak beste, euskaldunok erdarara jo barik, baditugula esapide ugari entzun ahal izan genuen, antzinetatik datozenak batzuk, eta garai berriek ekarri dituztenak beste batzuk: kanpaia jo, idiarena jo, Santa Ageda kantatu, partxisean aritu, sagua likatu, larrutan egin, andretan egin, txortan, kiñetan...

Gazteleratik euskarara egin diren itzulpen lotsagarri batzuk ere aipatu zituen: Abandoko geltokian egon zena: "Trenen azpikogonak". Edo beste autobus geltoki bateko kartelak esaten zuena: "Autobusak bihar eta berandu". Edo denda batean agertu zena: "Beherapenak 18tik, -ren, -ko 25era". Eta sinestezinak diren beste hainbat adibide jarri zuen.

Bestalde, prentsan eta orrialde horietan agertzen diren iragarkiez hitz egin zuen, benetan iragarki xelebreak:



Larrinoak komunak
Harkaitz Roca (itzultzailea)
Itsaso barea-surf denda
Nere azpitarte zabala (showgirl)
Zigor Arin Egia (abokatua)

Kikek argi utzi zuen euskarak jolas egiteko ere balio duela eta baita ere euskara modernoa eta osasuntsua izan daitekeela. Bertan egon ginenok benetan barre egin eta disfrutatu genuen ekitaldiaz.

Aikor!-ek Txorierriko komertzio eta enpresari eskertzen deutse aldizkarian publizitatea ipini izana.

Zeuen laguntasuna ezinbestekoa da aurrera egiteko.

TOLDOS ZAMUDIO S.L.

- Toldoak saldu eta alokatzea
- Toldoak konpondu eta ipintzea
- Eguzki toldoen mantentze lanak

Eskatu aurrekontu konpromiso barik

Pol. Torrelarragoiti P-6 A-4
48170 Zamudio (Bizkala)
Telf. 94 452 35 85

Magalarte Txakolina

Itzaki 94 455 65 08 Jabi 94 452 14 31

75 cl. 10,75 % vol.

Bekaisa Txakolina
Denominación de Origen

Jantzi mozorroa eta etorri aratusteak ospatzera!

Testua: Itxaso Marina

Antzinako gizakiek urtaro batetik bestera pasatzeko modutzat zituzten aratusteak. Kristautasuna zabaldu ondoren, Garizumako laztasunaren kontrako arma bihurtu ziren. Izan ere, aratuste hitzaren esanahiak haragia uzteko momentua ailegatzear dagoela adierazten digu. Heldu arte, prestatu mozorroa eta atera kalera, Txorierrin inauteriak ospatzeko aukera ugari dugu eta.

Zamudioko Gazte Asanbladakoek Sasimartxo Eguna ospatuko dute martxoaren 2an. Arrastiko 4etan plazan geratu eta Santu Tomás basilizara joango dira eguna pasatzera. Han, trikitixaren soinuak lagunduta txitxiburduntzia prestatuko dute. Halaber, hilaren 8an, arrastiko 5etan, jolasak eta tostadada txapelketa antolatuko dituzte plazan. Ondoren, kalejira egingo dute herritik.

Lezaman, otsailaren 28an artista lehiaketa izango da plazan 19:00etan eta gauz dantza emanaldia eta pantomima ikuskizuna, besteak beste.

Derioko Lainomendi dantza taldeak ere ekitaldi batzuk antolatu ditu egun horretara-

ko. Dantzatarako mozorroak jantzirik erromeria prestatu dute arrastiko 6:30etan. Dantzatu ostean, euskara taldearekin batera, triki-poteoa egingo dute herritik.

Beste alde batetik, Larrabetzun umeak mozorrotuta irtengo dira. Arrastiko 5etan txokolatada, gero dantzatzera joango dira frontoira. Ordu bi geroago, Hori Bai taldekoek erreleboa hartuko dute. Herritik kalejira egin eta gero mozorro pasarela antolatu dute. Indarrak berritzeko sagardotegia prestatuko dute.

Loiukoek ere primeran pasatuko dute martxoaren 4an, arrastiko 5:30etatik aurrera, frontoian.

...eta Sondikan?

Dudarik gabe, udalerrian ospatzen diren jairik garrantzitsuenetariko bat da aratustea. Hona hemen egitaraua:

Barikua, martiaren 7a.

20.30ean. Jai-hasierako txupinazoa.

23.00etan. Euskal erromeria, Zuldar, Linea 2 eta Ekon taldeen eskutik. Ondoren, diskoteka izango da.

4.00etan. Salda beroa denontzat.

Zapatua, martiaren 8a.

11.30ean. Kalejira. Jaigunetik irtengo da, Sardina, txistulariak, musika, konfeti eta abarrekin...

12.00etan. Ume-jolasak:

. Gaztelu puztagarriak,

. Motorrak,

. Ludoteka...

12.00etan. Gaiteroak.

13.00ean. Xigorki lehiaketa.

17.00etan. Jubilatuentzako kafe-omenaldia.

18.30ean. Kiki, Koko Moko eta Flahs pailazoak.

19.00etan. Ardoa Barrura fanfarrea.

19.30ean. Umeentzako txokolatada.

19.30ean. Umeentzako mozorroen eta xigorki lehiaketako sari-banaketa.

21.00etan. Sardinen hileta.

22.00etan. Afarirako atsedena.

24.00etan. Ur Gabe taldeagaz, dantzaldiaren hasiera.

2.00etan. Mozorro txapelketaren sarien banaketa.

2:30ean. Dantzaldiaren jarraipena.

3.00etan. Guztiontzako txokolatada.

4.00etan. Diskoteka.

5.00etan. Jai-gunearen inarratze popularra.



 **artez** koop. e.
euskara zerbitzua

normalizazio planak

Enpresa planak
Herri plan estrategikoak
Merkataritza planak

euskal papergintza

Bulego materiala
inprimaki komertzialak
Postalak, operariak, agendak...


itzulpengintza

Inprimakien itzulpenak
Testu komertzialak
Egokilzapenak...

 Luzarra, 10-2 • 48014 Deustu (Bizkaia)

 posta@artez.net • www.artez.net

 000 341 94 448 00 00

 000 341 94 475 72 29

Manuene

20 urte drogak uzten laguntzen



Testua: Patxi Gaztelumendi
Argazkiak: Itxaso Marina

Etxe bat da Manuene. Baserria. Eta jendea sartu eta irten egiten da. Denboraldi baterako sartzen da. Eta gero berriz ere bizitza *normalera* bueltatzeko asmoz. Bizitza zeozelan normalizatzeko. Manuene beti 24 lagun bizi dira, elkarbizitzen. Manuene ez da T5ko *Gran Hermanoko* etxea, ez da ETBko *Basetxea*. Baina bertako lagunek bizitza berri bat hasten dute handik irtendakoan. Gu ere arrasti batez Manuene sartu gara.

Oinez abiatu gara uritik Manuenera. Bertan dago, Marutialdean Manuene baserria. Lasaitasun itzela dago bertan, zarata gutxi. Eta barruraino sartu gara, portaleko atetik. Eta momentu honetan hezitzaileak eta bertako neska-mutilak batzartuta daude. Arratsalderoko batzarra da, merienda hartu aurretik. Gu sartzegaz batera, atsedean momentu bat eduki dute Manueneko gazteek. Batzuk merienda prestatzen zuten bitartean, besteek zigarro bat erre dute portaleko aterpean.

Eta gu etxera sartu gara. Goi eta behe ikusi digu bertako hezitzailea den

Patxigaz. 18 urte egin ditu bertan lanean, eta gogotsu erakutsi digu etxe guztia, bertako funtzionamendua eta gorabeherak. Hezitzaile lanetan dabil bera, eta alboan izaten ditu mediku psikiatra bat zuzendari lanetan dabilena, psikologo bi, ATS bat eta diru kontuak erobatan dituen administraria. Hori da lantalde osoa. Garbiketa, bazkari-janariak eta etxeko bestelako lan guztiak etxekoek egiten dituzte. Lan guzti-guztiak. Ondo ala txarto egin, euren ardura da.

“Aldaketa handia sumatzen dute beraiek, ezer ez dakitela etortzen dira hona gehienetan”, aipatu digu Patxik,

“kalean, edo lan batean edo edozertan ibilitakoak dira, baina etxe-kontuetan nahiko baldarrak izaten dira gehienetan, baina hemen ikasi beharra dago, eta berehala hasten dira gustuko lanean”. Psikologoek laguntzen dute bakoitzari zer lan eta giro dagokion zehazten. Bati bakarrik egotea komeni zaiola, ba plantxatzen eta arropa garbitzen jarriko dute arduradun. Orduak eman ditzan bakarrik, gogoetan... Talde

“Ezer ez dakitela etortzen dira hona gehienetan”

“Drogara jotzeko arrazoiak eta arazoak gainditzeko, oso lagungarria da Manuenen eramaten den bizitza intentsua”

lana beharrezko dela, ba sukaldari taldean orduan. Eta horrela etxeko lan guztietan. Eta lan bakoitzak bere arduraduna dauka. Hezitzaileak gogorak dira arduraren kontu horretan. “Sukaldari taldeari bazkaria txarto atera zaiola, ba hori da dagoena, eta beraz jan egin behar da”, dio Patxik, eta gauzak ondo egiten ikasten omen da horrela, “eta benetan ondo jaten dugula ziurta dezaket, neuk be bertan jaten dut eta”.

Gizarte bat bertan

Etxearen helburua drogan eroritakoak berriz ere bizitza normala egitea da. Horretarako, droga bera baino, “drogan erortzeko arrazoiak” aztertzen dituzte, Patxik aitatu digunez. “Drogara jotzeko arrazoiak, arazoak konpondu nahi izaten ditugu” eta horretan “oso lagungarria da hemen eramaten dugun bizitza intentsua”. Izan ere, Manuene ez da gaixoak sendatzen dituen zentro mediko bat, inolaz ere. Osakidetzarena da etxea, baina ez da osasuna gehien lantzen dutena, bizitza bera baizik. Bizitza eredua.



Norberak bere kabuz bizitzen ikasten du normalean

Eta intentsitate handiarekin bizi dute eguna bertan. “Hemen oso garrantzitsua da intentsitatea, ordena, errespetua, norbere burua zaintzea, osasuna... eta balore horiei guztiei sekulako garrantzia ematen diegu bertan”. Gizarte eredu bat lantzen da hemen. Elkartasunak, begiruneak, diziplinak indar handia dute etxean. “Jendeak bere kabuz bizitzen ikasi behar du, baina albokoari lagunduz, errespetatuz”, gaineratu du Manueneko hezitzaileak.

Guztira, 24 lagun egoten dira Manueneko etxean. Drogatik irten gura duten 24 pertsona. Gehienak gazteak izaten

“Hemen oso garrantzitsua da intentsitatea, ordena, errespetua... eta balore horiei guztiei sekulako garrantzia ematen zaie bertan”

dira eta batez ere mutilak. “Beti daude neskak, baina proportzio txikiagoan, asko jota 6, inoiz ez da 6 baino gehiagorik egon”, zehaztu du Manueneko arduradunak. Beraien artean, elkarbizitza ezin hobea egiten dute, hainbat hilabetetan elkarrekin bizi direlako. Eta oso harreman ona sumatzen da bertan.

Egun osoa lanpetuta ibiltzen dira Manueneko neska-mutilak. Soroko lanak egiten dituzte, gero etxean jateko gauzak bertatik ateratzen dituzte eta. Tailer bat ere atondu dute, altzari zaharrak konpondu eta berriztatzeko. Eta hor ere lana gainezka. Etxe guztia aurrera eroan, garbitu, txukundu, zaindu. Belarra moztu, loreak jagon. Horregatik da hain baserri ederra Manuene. Pinudian sartu eta etxe ederra da. Kanpotik bezala barrutik. Giro ona dago, sumatzen da. Baina berandu egin zaigu. Guk ere etxera joan behar dugu. Gu berriro goaz urira, etxera, oinez. Etorritako bidetik drogari buruz berbetan.



Lagun artean berba egiteko txoko aproposa da sutondoak



Ordu goxoak ematen dituzte liburutegian Manueneko lagunek

Lehen liburua aurkezten

Bizitza intentsu horren barruan, ikasketak garrantzia handia dauka. Eta horregatik eskolak ere antolatzen dituzte Manueneko baserrian. Liburutegi bat dute antolatua, liburu, disko eta bideoekin hornitua. Liburu asko daude bertan, "oso ezberdinak, baina gauza komun bat du gure liburutegiak, drogak agertzen diren libururik ez dago", aitortu digu Patxik seriooki. Harritu egin gara gu, literaturan drogak beti existitu direlako. Ulertu dugu bere planteamendua, geroago, Manuenen baikaude.

Astean 10 bat ordu jarduten dute ikasketa prozesuari emanda. Eta bakoitzak sakondu behar duen eremuan sakontzen du. "Luzaroan, ikasketarik gabeko jendea egon da hemen, eta horretan

laguntza handia eman dugu, jendeak oinarrizko ikasketak eduki ditzan".

Horrez gain, badute beste gauza bitxi bat ere Manueneko liburutegian. Hilero, partaide bakoitzak liburu bat aurkeztu behar du. Irakurritako liburu bat aurkeztu behar du jendaurrean, lagunen aurrean. Ariketa polita dela aipatu digu hezitzaileak. Interesgarri egiten zaie lagunei beraietako baten berba entzutea, liburua aholkatzen, liburuaren gaineko xehetasunak ematen.

Askorentzat, bizitzan irakurritako lehen liburuak izaten dira Manuenekoak. Bizitzan, publikoki liburu bati buruz berba egiten duten lehen aldia. Gerora, ordea, gustua hartzen diote irakurtzeari. Ez dago dudarik.

Josefinaren gerizpea

Duela 20 urte hasi ziren Manuene baserriko proiektuarekin Larrabetzun. Garai hartan Jose Antonio Lekue zegoen alkate, eta gogoratzen du, bai, zelan etorri ziren proiektua aurkeztera udaltxera. Manuenekoak oso pozik daude, ordutik hona herriarekin izandako harreman onaz. Eta horregatik ahal duten guztietan parte hartzen dute herriko ekintzetan: Korrika guztietan, triatlaietan, lehenago antolatzen ziren futbito txapelketetan. Eta herriko elkarteek ere parte hartu dute Manuenen. Kukulbitxok aktuzioak egin ditu, tailerrak. Itxaropena Martinez de Lezea be sarritan joan da bertara. Hori Baiko gazteek atzerriko gazteak eroan izan dituzte.

Baina Manuene eta Larrabetzuren arteko harremanik handiena Josefina izan da. Sasietzeko Josefina. Orainsu jubilatu da, baina Manuene gertutik ezagutu duen larrabetzuar bakarra da, bertan ibili da lanean sortu zenetik eta hona.

"Pena handia izan da guretzat Josefina jubilatzea", "hemengo motorra bera zen", "orain zer egingo dugu sororan?" entzun dugu Manuenen. Errespetu eta maitasun handia izan diote 20 urteotan Josefinari bertan. Eta agintea ere hartu du denboraren podesuz. Eta bertakoak oso esker onez bizi izan dira Sasikoetzeko emakumeagaz. Josefina jubilatu da. Manuenek 20 urte bete ditu. Ospatzeko sasoia da.

mead *Embalaje y Materiales*

Mead Embalaje S.A.

San Martin, 28
48170 Zamudio - Bizkaia

☎ 34 - 94 452 38 48
34 - 94 452 35 16

Telex 34 - 94 452 20 88
34 - 94 452 20 22

e-mail: ick1@mead.com

Especialitateak:

- Finisak
- Plater konbinatuak
- Bereziki ur-fotazio iberrak
- Antze-laborkatzen plaza. 2
- 48170 Zamudio
- Tel. 94 452 37 02

Zetatik irekia

Crazy Guitar

Zamudio

Larrundoko Ikastetxea
ESPERANZA ALIAMA
Lanbide Heziketa

ETORKIZUNERA BEGIRA HEZITZEN

*Hizketa-iklia (INE)ko ikastetxak
Lanbide Heziketarako Ikastetxak (C.I.P.)
Lanbide Heziketarako Ikastetxak*

1999ko urtean, 1999ko urtean,
1999ko urtean, 1999ko urtean, 1999ko urtean, 1999ko urtean

Zer pentsatzen dute gazteek drogari buruz?



Oihane Ziordia

Drogak legalizatuko balira, kalitate handiagoa izango luke-telakoan nago. Askotan, droga kontsumitzen duten gazteek ez dakite zer hartzen duten. Gainera, merkeagoak izango lirateke. Beste alde batetik, gaztetoek normalizat hartuko litzuzke eta ez lukete hainbeste kuriositaterik izango. Badakigu askotan debekatuta dagoenak itzelezko erakargarritasuna duela.



Ibon Meñika

Gakoa drogaren erabilpe-nean eta heziketan dago. Nahiz eta legalizatu, heziketaren arlo-an aurrerapausorik ematen ez bada, ez dugu ezer konponduko. Izan ere, drogaren inguruan daukagun informazioa gutxi izateaz gain, erabat manipulaturik dago interes batzuk bete daitez-en. Gaur egungo egoera kontuan hartuta, drogaren asuntua ikuspegi suntsizaile batetik bideratzen dutela uste dut.



Josu Ziordia

Nire ustez, drogaren legalizazioa ez da konponbidea, bai-zik eta jendeak gai honetan kontzientzia hartzeko bitarteko bat. Legalizazio onartuko balitz, agintariek gestioa egin beharko lukete drogaren atzean dagoen eskua ilunpetik ateratzeko. Izan ere, droga ez da irabaziak lortzeko bidea, norberaren aukera bat baizik.



Gorka Uriarte

Legalak izanez gero, batzuek pentsa dezakete drogazale gehiago egongo liratekeela, baina adingabekoentzat ez litzateke hain erraza izango haiek eskuratzea, orain den bezala. Estatuak drogaren kudeaketa izan beharko luke eta irabaziak drogamenpekotasunerako zerbitzuak finantzatzeko erabili beharko litzuzke.



Nerea Arregi

Behinola heroinarekin zego-en kontrol falta daukagu orain pastilekin. Gainera, gobernua eta polizia drogak erabiltzen dituzte, gazteak euren menpe edukitzeko eta era horretan informazioa lortzeko.



Itxaso Veiga

Gaur egun, gazteok badakigu non bilatu, zer hartu eta zein prezioan saltzen diren drogak, baina pentsatzen dut informazio gutxi daukagula ondorioei buruz. Drogak legalak izanez gero, ez ginateke bueltaka egongo gai horrekin.



Ainara Barrena

Legalizazioak eragin positiboa izango luke gazteengan. Eskuragarriagoak izan arren, normalizazio baten barruan egongo lirateke eta informazio gehiago izango litzateke. Izan ere, gazteek ez dute informazio handirik horren inguruan eta eskaini egin behar zaie. Hau da, zer kontsumitu, non, zein neurritan, norekin...



Ioritz Larrabeiti

Legalizatuz gero, drogek eragiten dituzten kalteak azaldu beharko lirateke saltzen diren ontzietan. Arrisku horiek zeintzuk diren jakinda, ez deritzot ondo, gazte bat mundu horretan sartzen denean, haren axolagabekeria geuk geure poltsikotik ordaindu behar izateari.

AVRTENETXE .S.A.

MAKINARIAREN SALMENTA ETA KONPOSAKETA
NEKAZARITZA - LORLZAINITZA

ERAKUSKETA ETA TAILERRA

Aretxalde, 105
Tel.: 94 455 62 66
Fax: 94 455 65 66
48100 ITZAMA (Bizkaia)

Autonomia, 57
Tel.: 94 427 29 18
Fax: 94 427 29 18
48012 BILBAO

ALDIZKARIAN PUBLIZITATEA
JARRI GURA DUENAK DEITU
BAINO EZ DU EGIN BEHAR
TLFNOA: 94 452 34 47
EDO E-MAILEZ ESKATU
aikortxori@yahoo.es

Odol-ematek biziak salbatu ez ezik pairamen latza ekidin ere egiten du

Testua eta argazkiak: Itxaso Marina

Gaur egun, odola premiazko baliabidea da gure gizartean. Hori jakinda, Txorierrin hainbat odol-emaile elkarte sortu dira. Itziar Goiri, talde horietako ordezkarien arduraduna izateaz gain, Derioko Odol Argia elkartean hartzen du parte. Taldekidek bai zitazioak bai analitikoak banatzen dituzte eta urtean zortzitan odol-ematea prestatzen dute. Gauza gehiago jakiteko nahian, odol-emateko unitateraino hurbildu gara.



Odola eman ostean, ezinbestekoa da indarrak berritzea.



Emaleari 450 cm kubiko odol ateratzen zaizkio.

Dosanbiz Bizkaiko *Odol Emoileen Elkartearen* arabera, estatu mailan 50.000 bizi salbatzen dira urtero odol-emateei esker. Horrezaz gainera, ebakuntzen ondorenezko pairamen latza ekiditzen da. Izan ere, gaixoak arinago sendatzen dira.

Bizkaian 1000 biztanleko 38 odol-emate egiten dira. Kopurua urria izan arren, Euskadi mailako datuak onak dira: 1000 biztanleko 47,1 odol-emate. Hala ere, etorkizunari dagokionez Elkarte ezkor agertzen da. Zergatien artean jaiotza-tasaren jaitsiera dago. Nagusiak odol-emaileak izan litezke, baina ebakuntza gehiago izaten dituztenez ezin dute askotan odola eman. Beste alde batetik, gazte gehienek piercingak eta tatuaiak izaten dituzte eta, ondorenez, odola emateko ez gai bihurtzen dira.

“Odola emateak ez dio gorputzari kalterik egiten eta analisiak direla medio osasuna kontrolatzen da”

Odola emateak ez dio gorputzari kalterik egiten eta analisiak direla medio osasuna kontrolatzen da. Odol-emaileak 18tik 65era bitarteko adina izan behar du eta 50 kg baino gehiago pisatu behar du. Gizonezkoa bada urtean lau aldiz eman dezake eta emakumezkoa bada, hiru aldiz. Beraz, hiru hilabeterik behin-edo eman daiteke odola.

“Odolaren premia handia dago eta kuxkak beteta egoteko bakoitzak urtean bitan emango bagenu nahikoa izango litzateke”, azaldu digu Itziarrek, “Nahi duena elkartera hurbil daiteke, hemen zalantza guztiak argituko zaizkio”.

Odol-ematea %5 igo da Txorierrin

2001 urtean 805 odol-emate egin ziren gure eskualdean, iaz 846. Beraz, odol-ematea %5 igo da.

Datu horien arabera, 1.000 biztanleko 48 emate izan ziren 2002 urtean. Nahiz eta oso kopuru ona izan, ez da nahikoa eta oraindik lan handia dago egiteko.

"Jendeak kontzientzia hartzea oso beharrezkoa da" adierazi digu Jesus Garciak, Txorierriko oinarrizko osasun-arretako unitatearen arduradunak (jefe de la unidad primaria de atención del Txorierrin), "Gaur egun, edozein ebakuntza egiteko ezinbestekoa da odola". Horretara, bada, Derioko anbulatorioan odola emateko txandaren zain zeuden lagun batzuekin egin dugu berba.

"Mundu guztiak eman beharko luke odola", komentatu du Jose Luisek, "Norberarentzako kalterik ez eta besteei lagundu egiten zaie". Orain dela hamar urte bihurtu zen odol-emate gazte hau. "Oso gauza polita da jendea lagundu ahal

izatea", esan digu Silviak. Gainera, askotan izaten dituen buruko minak arintzeko ere balio diola gaineratu du. "Beste alde batek, egiten dizkiguten analisei esker sasoi onean gaudenentz jakin genezake", dio Adolfo, "Zoritzarrez, garai batzuetan odol eza handia dago eta guztiok hartu beharko genuke horren ardura", horixe da gizonezko honek zabaldu nahi duen mezua.

Anbulatorioan eskegitako kartela ikusita, Xabik odola ematea erabaki du. Bere lehenengo aldia izan arren, nahiko lasai dago. "Ondo nago", erantzuten du adiskideek galdetuta. "Jende asko uzkur da odola emateko eta zergatiak aztertu beharko lirateke", proposatu du Jose Ignaziok, "Edozein momentutan gerta daiteke geuk edota senide batek odol-transfusioa behar izatea". "Bai, jakin badakit oso beharrezkoa dela, baina ez naiz ausartzen", esan du Pilarrek. Senarrari laguntzen askotan dator emakumea, baina ez da inoiz sartu autobusera. "Ez ditut orratzak bat ere gustuko eta beti topatzen dut aitziaren bat. Agian hurrengoan..."

Odola-ematea egiteko jarraitzen diren pausuak

Arau batzuk irakurri eta fitategia bete ondoren, odol-emateak medikuarekin hitz egiten du. Horrek zalantzak argitu eta odola eman dezakeen ala ez erabakiko du. Gero tentsioa eta hemoglobina aztertzen dizkio. Dena ondo irtenez gero, ematea autobusera sartzen da.

Autobus barruan, erizainak nolako prozesua egingo den azaltzen dio. Ohatila batean etzanda, konpresorea jartzen dio. Erizainak ematea zenbaki batekin identifikatu eta datuak poltsa batean apuntatzen ditu. Orduan dena dago prest emanketa hasteko.

Emateari 450 cm kubiko odol ateratzen zaizkio. Lehenengo 40 cm kubiko analisia egiteko gordetzen dira. Balantza batean uzten da poltsa, 450 cm kubikoak betetzen direnean abisatu eta poltsa izteko. Indarrak berritzeko odol-emateak jan ez ezik likido asko edan ere egin behar du.

Odol emateak Txorierrin 2.002 urtean

Udalerrria	Biztanleria*	O d o l e m a t e a k			%	Odol emateak 1.000 biztanleko 2002 urtean
		2001	2002			
Derio	4.846	399	371	7,5-	77	
Larrabetzu	1.551	50	42	19-	27	
Lezama	2.113	119	119	=	56	
Loiu	2.199	22	20	10-	9	
Sondika	3.978	135	151	11,8+	38	
Zamudio	3.012	80	143	78,7+	47	
GUZTIRA	17.699	805	846	4,9+	48	

* 2.001 urtean EUSTATen datuen arabera

TORREKO TXAKOLINA



1883-TIK TXAKOLINGILEAK
TORRE BASERRIA
Aretalde suzta
48196 LEZAMA
Bizkaia

José Antonio Dañobeitia ☎ 94 473 15 34
Pedro Maria Dañobeitia ☎ 94 676 05 20
Bodega ☎ 94 455 62 39

TXAKOLINA
LUISABE



119 cl. 75 cl.

Garniolta, 87
TE: 94 455 65 41
670 87 37 36

Bizkaiko Txakolina.
-Luzeneko Txakolina

Victor Gualboa Gualboiak bidia, prostatu eta botailatzen

LEZAMA-BIZKAIJA
N.R.E. 48/4038/BI

OLANDO S.L.
ARROZTEGIA

- Sukaldeko altzariak, neurrira eginak
- Bainugelako altzariak, neurrira eginak
- Horma-armairuak
- Mahaiak eta aulkiak
- Txokoetarako altzariak

Erletxe Industrialdea
115 plataforma, 34 nesaba
48960 Galdakao (Bizkaia) Tel./fax: 94 455 00 00

Fruta-arbolak: zelan landatu eta jagon

Testua: Itxaso Marina

Abendutik martxora bitartera da fruta-arbolak landatzeko garaia. Honen inguruan gehiago jakiteko asmoz, Magalarte mintegietako Iñaki eta Javi Aretxabaleta anaiengana jo dugu. Izan ere, haien mintegietan hainbat fruta-arbola mota aurki ditzakegu: sagarrondoak, madariondoak, okaranondoak, milikotondoak... Erabiltzen duten lan sistema azaldu digute. Otsailean, aldaxka (40 zentimetroko landare txikia) landatu eta abuztuan txertaketa egiten dute. Hurrengo neguan txertaketa gaintik moztzen da, kimuak hortik irtetzeko udaberriari; gero, neguan, salgai jartzen dituzte fruta-arbolak. Halaber, landaketa ondo egiteko kontuan hartzeko zenbait gauza adierazi digute.



Argazki oina: Iñaki eta Javi mintegietara hurbiltzen direnei edozein zalantza argitzeko prest daude.

Fruta-arbolak landatzeko aholku batzuk:


- 50 x 50 x 50 cm-ko zuloa egin behar da. Ahal izanez gero, alde zuriatik egitea gomendagarria da lurra aireztatze-ko. Dena dela, ez da ezinbestekoa.

- Txertoak ez du lurpean geratu behar inoiz ere.

- Garrantzitsua da lurra ona izatea.

- Sustraiak (edo susterrak) lurrez estali behar dira. Lur horren gainean satsa botako dugu, eta horren gainean lur gehiago. Satsak ezin ditu sustraiak ukitu, erre egingo bailituzke.

- Egingo den inauste motaren arabera, altuera batean edo bestean moztuko da. Era berean, landaren arteko distantzia kalkulatu da.



Zainketari dagokionez...

- Inauste eta ongarriketa urtero egin behar dira.

- Lurra ongarritzea erabaki ezker, neguan egin behar da. Lurrak, horrela, udaberriarako asimilatuko du ongarririk. Gainera, euriak ere lagunduko du lan horretan.

- Parasitoak ez agertzeko, produktu fitosanitarioak erabili daitezke. Hala ere, ez da gehiegi erabili behar, azken batean fruta geuk jango dugu-eta.



KIMA
Landarak
LANDARE APAINGARRIA
Gaitolea 59 • Tel. 94 455 51 00 • Fax. 94 455 61 77
48196 LEZAMA (BIZKAIA)

S.A.T. LEGY
LEZAMA
Gaitoleta Auzoa, 35
48196 LEZAMA - Bizkaia
Tel.: 94 455 61 98
Fax: 94 455 64 17

OKINDEGIA-DASTALEKUA
Aretxalde, 64
Tel.: 94 455 50 36 48196 11 /AMA

Software: lizentzia motak

Testua: Alberto Legarreta

Ordenagailuetako programa honeei deitzen jake software: sistema eragilea (Windows95, WindowsNT, Linux...), gehi-kuntzarako programak (datu-baseak, datu-prozesadoreak, kalkulu orriak...) eta programazio lengoaiakaz sortutakoak.

Kontuan hartu behar da software eralbiltzeko zein lizentzia mota daukagun, programa horregaz zer egin geinken jakiteko. Askotan txarto erabiltzen dogu eta nahastu egiten dogu freeware, shareware eta abar. Ez dakigu zer esan gura dauen bakoitzak eta zer egiteko baimena daukagun.

Beraz, lizentzia motak aztertuko doguz eta holan ikusiko dogu zelango ezaugarriak daukiezan, ondorengo puntu garrantzitsu honeek kontuan harturik: *kopiatzeko eta birbanatzeko baimena, salneurria, %100eko funtzionalgarritasuna, denpora mugarik gabe erabiltzeko baimena, erabilgarritasuna eta iturburu-kodeak aldatzeko baimena.*

Programa bakoitzak bere erabilera-lizentzia mota dakar. Honeexek dira:

- **Jaubeduna.** Softwarearen jaubeak haren garapena kontrolatzen dau. Software itxia da. Erabilteko ordaindu egin behar da. Kopiak egitea mugatuta dago. Konputagailu bakoitzeko lizentzia bakar bat emoten da. Debehatuta dago haren kopiak egitea eta birbanatzea. Windows95 eta Office mota honetakoak dira. Ordaindu beharrekoak izaten dira, nahiz eta askok, ezer be ordaindu barik, etxean euki (pirateria da hori).

- **Shareware edo ebaluaziokoa.** Jaubedun mota berezi bat da. Doakoak da, baina denpora mugatu batean erabili leike. Enpresak probak egiteko eta programaren ezaugarriak ikusteko emoten ditu. Ebaluaziotzat emoten da, ondoren software jaubeduna saltzeko.

- **Frogatzekoa.** Demo-a deritxogu eta ez da sharewareagaz nahastu behar, izan be, software hau ez da funtzionala %100ean, erabilera murriztuta dauka.

Helbide interesgarriak:

http://www.zientzia.net/artikulu.asp?Artik_kod=6258

http://www.geocities.com/sl_edu_columbia/soluciones/pablo/licenc1.htm

<http://www.gnu.org/>

Askotan, aldizkariakaz banatzen dabe, software jaubeduna saltzeko.

- **Librea.** Doakoa da eta posible da birbanatzea, kopiatzea eta iturburu-kodeak erabiltzea. GNU be deitzen jake. Programa hau edozeinek exekutatu, kopiatu, banatu, ikertu, aldatu eta hobetu leike. FSF erakundeak bultzatzen du haren erabilera eta garapena.

- **Domeinu publikoa.** Software librea, copyright ez daukana.

- **Erdi-librea.** Software librearen antzekoa da, baina ezin da erabili irabaziak lortzeko, eta horregaitik FSFk ez deritxo software librea.

- **Freeware.** Ez dakar iturburu-koderik, eta horrek bereizten dau software libretik.

Azkenean, software librearen eta jaubedunaren arteko lehia sortu da. Bakotxak bere ezaugarriak eta gaitasunak daukaz. Enpresarik gehienetan software jaubeduna erosten da, ziurtasun batzuk emoten ditulako, mantentze lanen premina egoten danean. Software librea gero eta gehiago erabiltzen da, askotan software jaubedunaren osagarritzat zeregin zehatz batzuetarako.

Pirata informatikoak software librea erabili dabe beti, eta horregaitik ez dauka izan onik. Halan be, informatikari trebeak be erabiltzen dabe.

Software jaubeduna garestiagoa da, baina software librea erabiltzeko trebetasun handiagoa behar da.

"Me discover fire, invent wheel, build server"

Microsoft
Copyright © 1995-1996
Microsoft Corporation

Microsoft
CaveOffice

Microsoft Windows NT Server Version: 4.0
NT: Neanderthal Technology

This product is protected by US and international copyright laws as described in the About Box.

FMC Foret, S.A.

Zamudioko Fabrika
Sien Mielin sarroa, 130
Zamudio (Bizkaia)
Tel.: (94) 452 00 88 - 55
Faxa: (94) 452 11 46

SUINOR COMPUTER, S.L.
POL. IND. TORRELARRAGOITI, POL. BLOQUE 1, NAVE 3 - ZAMUDIO

WWW.SUINOR.COM

!!! 10 AÑOS CONTIGO !!!

BILBAO INFORMATICA - c/ Asturias, 54 tel / fax: 94 4216254
BARAKALDO INFORMATICA - Avd. Mirando, 3 tel/fax: 94 4781643
LEIOA INFORMATICA - Avd. Iparragirre, 54 - local - (galerias batzok) tel. 94 482 45 38

DERIO FRUTADENDA

Sollube, 8
Tfnoa: 605 77 12 62
DERIO

Mari Carmen Mendiguren, bi

Testua: Maite Aranburu

Zamudioztar maistra hau gazte-gazterik hasi zen umeein lanean, jagoten eta irakasten, izan ere 14 urte besterik ez zituen Bilboko Solokoetxe eskolan ikasketak hasi zituenean, gerora, eta bere aitaren iradokizunari jarraituz, "maistra ona" izateko. Umeein lehenengo kontaktua Sondikako ikastolan izan zuen, Polixene Trabuduak beste maistra bat ordezkatzeko eskatu zionean. Handik aurrera, beti ibili da hara eta hona umeak hezitzeko helburuarekin.

Sondikako ikastolan ordezeko moduan egon ostean hainbat lekutan ibili zara maistra moduan, ezta?

Bidaltzen zidaten eskoletara joan besterik ez nuen egiten nik! 36an, gerra garaian, maistra ikastaroa egin nuenetik beti egon naiz umeei klaseak ematen 1980ra arte. Ikastaroa egin ostean, Lezamako eskolan ibili nintzen lanean. Ahal izan genueneraino ibili ginen klaseak ematen, baina bonbak gertu jausten hasi zirenean eskolak itxi egin ziren.

Gerra hasita, egoera asko aldatu zen mundu guztiarentzako, baina zure lan egoerak itzelezko aldaketa jasan zuen, ezta?

Eskolak itxi zirenean, askok ez genekien zer egin. Gainera, gerra egoera hori ez zen egokiena umeentzako; beraz, Eusko Jaurlaritzak hainbat maistra, erizain, mediku eta abaderi gerra bukatu arte umeein atzerrira joatea proposatu zigun. Askok Errusiarara joan ziren, beste batzuk, aldiz, Ingalaterrara. Maiatzaren 20an irten ginen "La Habana" barkuan 4.000 ume, 80 maistra eta 120 laguntzaile, Ingalaterrarako bidean. Hiru egun beranduago heldu ginen Gouthamtonera.



Carmenek Ingalaterran emandako egunak nostalgiaz gogoratzen ditu

Zaila egin zitzaizun atzerrira joateko erabakia hartzea?

Egia esan, pena handiarekin irten nintzen etxetik, baina umeen beharizanak kontutan izanik, ez zitzaidan zaila egin erabakia hartzea.

Zenbat denbora egon zineten Ingalaterran?

Urte bete bi eta erdi inguru egin genuen Ingalaterra aldean. Lehenengo kanpamentua Southamtonetik urrun



GARAIOLTZA, S.A.
PROMOZIOAK-ERAIKUNTZAK

LEZAMA

ETXEBIZITZAK, MERKATARITZA-LOKALAK ETA GARAJEAK

LEHEN MAILAKO ERAIKUNTZAK; LEHIATE HANDIAK;

ORDAINTZEKO ERRAZTASUN HANDIAK

TF.: 94 455 50 19

Garaioltza auzoa, 128 (behea)
Lezama (Bizkaia)



GRUPO "ACOFISA" ASESORES
KONTABLE-FISKAL-LAN-JURIDIKOA

Luis Fernando Aguirre

Makabe Herakomunegok, 1 - beheak Nervión, 3 - 8º -33pis. 15-7
Tfnos.: 94 423 33 28 Tfnos.: 94 423 42 42
Faxa: 94 455 50 Faxa: 94 423 61 70
48150 SUJINIZKA - Huelva 48101 HIL HALL

zitzia osoa umeei dedikaturik

zegoen herri batetan zegoen. Bi hilabete bertan egin ondoren, Licheko kolonia batera bidali gintuzten urte bitarako. Munduko gerra hasi zenean, komentu batetan egon ginen, eta handik etxera.

Nolakoa zen kanpamentuko egunerokotasuna?

Lehenengo kanpamenduan, esaterako, 400 kanpain-denda zeuden; 75 irakasle ginen, eta 8 ume geneukan bakoitzaren kargupean. Goizetan, zapiak aldera, bozgorailu batzuetatik jartzen zuten musikarekin esnatzen gintuzten. Dendak garbitzen genituen, oheak egin eta ahal genuen moduan garbitzen ginen (dutzak lona batzuekin eginak zeuden eta ura iturburu batetatik zetorren, oso hotz!). Horren ostean, gosalduta eta klaseak hasien genituen. Betiko eskoletako dinamika berdina jarraitzen saiatzen ginen, umeek ahalik eta aldaketa gutxien nozitu zezaten.

Nolako erlazioa mantentzen zenuten bertako biztanle eta bolondresekin?

Oso ona! Guztiakin izan genuen oso tratua ona orokorki. Norbait bereziki aipatzekotan, Miss Maining-eri buruz hitz egingo nuke. Bertara heldu ginenean, dukesa laborista horrek asko lagundu zigun umeekin. Egia esan, oso oroitzapen ederrak dauzkate bertan egin nituen lagunetatik.

Nola jasotzen zenuten etxeko egoerari buruzko informazioa?

Familiarekin karta bidez mantentzen genuen kontaktua. Ondo gogoratzen dut oraindik, nola bozgorailuetatik abisatzen gintuzten nortzuk zeukaten gutuna egun horretan. Nahiz eta egun batean ez jaso

"Klaseak mistoak zirela ikusita inspektoreak nacionalista acérrima deitu zidan"



1943. urtean Zamudioko eskolaumeak.

eskutizik, zure herritik gertu ziren baten baten eskutizak balio zizun egoera zein zen jakiteko. Hori bai, etxera bueltatzen gineneko albistea izan zen han poztasun handienez jaso genuena dudarik gabe!

Itzulera gogorra egin zitzaizun?

Bertan egindako lagunak agurtzea izan zen gogorrena. Kontutan izan denbora asko egin genuela elkarrekin, eta bat batean guzti hori ahaztea eta aldatzea oso zaila egin zitzaidan. Horrez gain, etxera itzultzeko itzelezko gogoekin geunden guztiak; senitartekoak ikusi, herrira bueltatu...

Ezberdintasun asko ikusi zenuen Zamudian gerra aurretik eta itzulera bitartean?

Baten batzuk bai. Ingalaterran emakume asko ibiltzen ziren autoak gidatzen, hemen, aldiz, ez. Gainera, dendak gaur eguneko Corte Inglesa modukoak ziren garai horretan, izugarriak! Kaleak oso garbi mantentzen zituzten...

Nola antolatuta zenuen bizitza etxeratzean?

Hasiera baten, etxe batera nindoan umeak zaintzen. Gerora, herriko emakume batek bere alabari klase partiku-

larrak ematea eskatu zidan, eta horrela, pixkanaka-pixkanaka, 40 ume inguru etortzen ziren nire klaseetara. Horrek buruhauste bat baino gehiago ekarri zidan gainera! Baten, Don Pablo inspektorea etorri zen eta ikaraturik gertatu zen, klaseak mistoak zirelako! Ondo gogoratzen dut nola "nacionalista acérrima" deitu besterik ez zidan egiten! Eskola inprobisatu hura itxi egin behar izan genuen. Handik urte batzuetara, Gobernuak oposaketa batzuk prestatu zituen maistra moduan lan egiteko eta azterketa gairiditu ostean berriz ere hasi nintzen eskola ematen.

Ez zara inoiz damutu aukeratu zenuen lanbideaz?

Inoiz ere ez. Atzerrian geundenean oso gogorra egiten zitzaigun etxekoekin ez egotea, baina umeak ondo eta pozik ikusten genituenean guzti hori ahazten zitzaigun. Gaur egun Maistren lana eta lan-egoera, bereziki, zeharo aldatu da, baina oso pozik nago egindako lanarekin eta ezagutu ditudan lan-kide eta ikasleekin. Baten baino gehiagotan etorri zait ikasleren bat etxera bisitan!

Sabin Askolizaga
Aspuru Agutxa
AIIATZ
609 47 57 46
TIE. 94 4531807
Fax 94 4531027
Mizina, 6. Daxo
48150 Sarratza-Bizkaia

CARROCERIAS TXORIERRI
R-M PINTURA
José Antonio Sanz
TXAPA ETA LABE-PINTURA
Torrelagotiti poligonoa
Vial sur C-15, Nave BB-1
48100 Zamudio (Bizkaia)
Telefonoz: 94 452 28 00

GARRAIOLARIA
Miguel Angel Lokua:
ANDRA MARI, 19
LARRABETZU
Tlnoa. 94 455 80 20

ZAMUDIO MOTOR IDENTICA
94 452 1616
94 452 1646
Pol. Torrelagotiti
Pab. 6, Bloque 3
48170 ZAMUDIO
BIZKAIA

AUTOMOBILAK
Nire Autoa
SANTIBAN 6
TEL. 68970611
64967712
AUTOEN IMPORTAZIOA ETA SALMENTA

TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA
Torrelagotiti Ind., B - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Derioko kanposantua, ezezagun hori

Izenburua ez dela zuzena esaten hasi beharko gara, ez dugula berba egingo Derioko kanposantuari buruz, Bilboko kanposantua da izatez. Baina egia dena da txorierritarren artean ez dela batere ezaguna eta merezi duela bertara txango bat egitea. Rafa, hainbeste urte bertan lan egindakoa dugu bidai lagun.

Ate nagusitik sartuko gara. Aurrez aurre kapera nagusia, galeriaz inguratuta. Paseatu galerietatik, orain dela gutxi birkonponduta daude, bobeda urdin-urdina, zutabe koloredunak, koloreen sinfonia. Kaperaren atea ikusteagaz konformatu beharko gara, zeren itxita dago. Barru ikusgarria hurrengo baterako utziko dugu.

Kaperaren atzeko aldera joko dugu, panteoi nagusietara... edo jauregitxoak

Ekiialdera egingo dugu kanpoko hor-magaz topo egin arte (Mungia doan errepidetik babesten duena). "Kanposantu zibilean" gaude. Garai batean, lurra elizatik hartzen ez zutenentzat egokitua. Jakina, ez hain dirudunak, eta igarri egiten da. Bertan, besteak beste, Tomas Meabe eta Indalecio Prieto sozialista historikoen hilibiak, Facundo Perezagua komunistarena... Ondoan, hilarri barik, kaktus erraldoi baten azpian, gerra ostean hildako "gorriak" eta makiak lurperatzen zituzten lekua.

1936eko gerraz gauza gehiago ikaste-ko, orain dugu aukera. Jarraitu horma bertatik hegoalderantz. Lehen eta bigarren nitxo bloke itsusien artean horma zaharra ikusgai, emakumezko "gorriak" fusilatzen zituzten horma. Aurrerago, horma zahar-eran plaka berri bat ikusiko dugu, bertan gizonezkoak fusilatzen zituzten.

Beste bandokoez, frankistek, bazuten ere beraien hilak, monumentu bihurtuta. Sarrera nagusitik aurrez aurre, lur azpiko kriptak kartzeletan hil zituzten "frankistak" gogorarazten ditu, kontuz urez betetzen da eta. Eskuinetara soldaduen 4 eskultu-
rak gerran hildako "nazionalen" hilibia zaintzen dute. Galeriak ezkerretatik igaro ezkerre, ezkerretara jo eta horma zahar bat monumentu bihurtua ikusiko duzue, alboetan bando horretako fusilatuen izen grabatuekin.

Apur bat funebre amaitu badugu ez harritu, kanposantu batean gaude eta.



Ate nagusitik sartuz gero galerietatik pasea daiteke.

Orain hartu patxadaz eta paseatu lasai, bertan mila bazter eta historia dago, aurkitzen saiatuko gara besteak beste: Genaro Riestra gobernadore eta Gurguide gotzain frankistak, Etxebarrieta anaiak eta Joseba Asensio etakideak, Ajuriagerra jeltzalea...

Testua: Jose Angel Mentxaka



Kanposantuan aurki ditzakegun eskulturatariko bat.



Galeriako ikuspegia.

dira. Jabeen familietan fijatuko gara, Ybarra, Epalza, Martinez Rivas, Chávarri, Guzmán, de la Sota, de la Riva, Bizkaiko familia aberatsen boterea hemen ere erakusgarri. Beste hainbat bereziak dira, artistikoak, Solaun Igartua, 1912. urtean zirkuan erre ziren umeen omenezkoa, Jimenez ijito familiarena... Granito, marmola, burdinazko... figura eta eraiketaz nekazten garenean jarraituko dugu.


BITXITEGIA - ERLOJU-DENDA
Ruben
Lekendakari Laitasoki Plaza, 5 - Tel: 94 472 14 49
Zamudio (Bizkaia)

CENTRO MILSATE
LASAI

77 Solako 43 (Lejona)
48100 ELORRIO (Bizkaia)
Tel: 94 441 8078
Móvil: 609 74 24 00
Fax: 94 441 8078
Faxo-1: 94795000@sumokas.com

Terapiak:
- Ultrasonido (fisioterapia)
- Mendiostimulazio
- Osteopatia
- Masaje
- Lantzenak kardiokinesio

Clínica convalecencia con:
- Cines de seguridad (fisioterapia)
- Ejercicios de la mano
- Clases deportivas
- Psicológico


Inmobiliaria ETORKI
Horriko Plaza, 1 Lejona
Tel: 94 404 50 53
Móvil: 607 32 36 53
48160 DEJUNO

BEHAR BIDASOA GKE

Behar Bidasoa GKEaren Bizkaiko taldeak Kolonbiako Pereira herrian du Garapen Gunea. Pereirako Las Brisas auzoko emakumeek eta umeek, pobrezia zama latzena daroatenek, etorkizunaren aktore eta autore izan daitezzen baliabide eta bitartekoak sortzen eta antolatzean dihardugu.

2002 urtean zehar 12.165 euro bidali dira Emakumeen Formakuntzarako zentroko tailerretako hiru monitoreen soldatak ordaintzeko, baita koordinatzailearena eta zaindariaarena ere. Zamudio eta Derioko udalak diruz lagundu dute proiektu hau.

20.500 euro bidali dira apadrinatuta dauden 100 umerentzako.

2001ean egin zen jantokian 300-350 bazkari banatzen dituzte monjek egunero. Haurrak, titia ematen ari diren amak eta haurdun dauden emakumeak joaten dira bertara, astelehenetik larunbatera.

Aurten Emakumeen Formakuntzarako zentruan tailer berriak egiteko asmoa dugu, baita auzo guztiari zerbitzua eman-go dioten liburutegia eta haurtzaindegia ere. Bizkaiko Foru Aldundiak 86.000



El Danubio auzoko umeek, 8-10 urte izanda, etxera dirua eramateko beharra dute.

euroko dirulaguntza eman digu proiektua aurrera eramateko eta ONGak jarriko du gainontzekoa, 21.500 euro gutxi gora behera.

Betiko moduan, ONGean parte hartzera gonbidatu nahi zaituztegu, eta ateak irekita

ditugu laguntzeko prest dagoen ororentzat. Hauxe da gure telefono zenbakia: 94.455.50.58.

Testua eta argazkia: Iñaki Bilbao

“LAIA HOTEL MUSEOA”



Parke teknologikoa

Eraikina 806 - Derio (Bizkaia)
Tel. 94 431 76 80
Fax 94 431 76 81
laia@saviat.net
www.saviat.net

Txorierrin kokatuta dago, Derioko herrian. Energia berriztagarrien sistemiei esker, berau da hotel ekologiko bakarra.

Hidromasajeaz hornitutako 38 gela ditu. Gorriti euskal eskultoreak beren-beregi egin du ohe bakoitza.

Euskal Herriko historiaurretik gaur egunera arteko elikatze-moduak erakusten dituen museo bat jarri da jantokian.

Euskal gastronomia dastatu ahal izango duzu, antzinako errezetak zein sukaldaritzarik berritzaileena.

Fitness eta spa zentroak relax zirkuitu hau eskaintzen dizu atsedean hartzeko eta erlaxatzeko: sauna, vaporiuma, jacuzzia, dutxa inguratzailea eta automasajeko koltxonetak.

Aurreko galderaren erantzuna: Korrika Txorierritik apirilaren 8tik 9rako gauean pasako da.

Irabazlea: Eider Bilbao



LEHIAKETA

Hilero-hilero, lehiaketa bat egingo dugu aldizkarian. Saria hauxe izango da, lagun birentzat: asteburu batean gau bat pasatzea Laia Hotel Museoan. Sariaren barruan daude gela bikoitza, buffet-gosaria eta Spa zirkuitua (sauna, jacuzzia, etab.)

Zozketan parte hartzeko, galdera hau erantzun behar duzue:

Nori zuzenduta dago Txorierriko euskara zerbitzuak zabaldu duen kanpaina?

Bidali erantzunak (zuen telefonoarekin), martxoaren 18a baino lehenago, postaz (Totoan, Aretxalde 1, 48196 Lezama), edo aikortxori@yahoo.es helbide elektronikora idatzita.

(Saria Laiaren eskaintza duzue).

Sukaldaritza

Etxeko sukaldaritza

Kremazko tostadak

Osagaiak (4 lagunentzat)

- Litro bat esne
- 4 arrautza gorringo
- 200 gr urun
- 6 koilarakada azukre
- Kanela palua eta hautsa
- Limoi azala
- Oliba olio

Esne litrotik apur bat apartau eta irikiten ipini limoi zati bat eta kanela palu batez. Beste esnari bota arrautza gorringoak eta urune eta ondo nahastau. Euki irikiten hamar bat minutuan astiro-astiro eta eragin denpora guztian. Honen ganera bota limoi azala eta kanelagaz daukagun esnea eta eragin guztiari. Azkenean azukrea bota. Hau dana bota bandeja batera; zenbat eta finago hobeto. Hotzitzen danean, egin zatiak kutxilo batez eta albardau urunegaz eta arrautzagaz. Orio askotan prijidu eta kanela palu zati bat be bota. Prijidu eta gero nahastau azukrea eta kanela hautsa eta ganetik bota.



Mari Tere Onaindia



Erreboiloa patata panaderekin txakolin erara

Osagaiak:

- 2 kilo erreboilo (rodaballo)
- Kilo bat patata
- Kipula bi
- Piper berde bi
- Edalontzi bat oliba-olio
- Edalontzi bat txakolin
- Perrexil xehatua
- Gatza

Prestatzeko era:

Lehenengo eta behin, zartagin batean kipulak, piperrak eta patatak (xaffa mehetan ebakita) oliotan jarri behar dira. Apur bat erretzen utziko ditugu sutan.

Kazola batean patatak eta erreboiloa ipiniko ditugu. Gatza bota eta sartuko dugu labean (200°) 20 minutuan.

10 minutu pasa eta gero, labea ireki eta txakolinez bustiko dugu arraina. Berrito itxi eta, 20 minutuak betetzen direnean, perrexila zabalduko gainetik.



Artea Errota jatetxea (Zamudio).

Kudeaketarako Sozietatea
Birziklitzeko Zentro Aurreratua



Tratamendu lerroak

- Erabilitako olioak
 - Agortutako taladrinak
 - Disolbatzalleak
 - Automozio
- hondakinen kudeaketa osoa

Torrelarragoiti Ind. z/g 48170 Zamudio
Telefonoa: 944 977 177 - Faxes: 944 522 619

ATXORIERRI
Inmobiliaria

ZUIDEGANDIN DEITUEEN IRUMIEN INMOBILIARIA
AHO KULARTZA, TASAZDIA
ALOKATZEAK, ISKIALDITZEAK
SALEKOSKETAK
SOLITUEN GILBAHON AGENTZIA

Beto Ajeria, 250THERRA, DEUKALA
Tel. Fax: 945 11 1282 - 945 11 1111
E-mail: Iker Etxebarria@atxorierriri.com

GOMENDIOAK

Amagoia Gezuraga

LIBURUAK

"Franti"

Karlos Linazasoro

Franti gizontxo eskuzabala eta umoretsua da. Lanera pozik doa eta adinean sartuta egon arren, ez dau erretiratu nahi. Pertsona xelebrea da.

"Denboraren izerdia"

Xavier Montoia

Protagonista zinema-produktore bat da. Oraingo suerte oneko dabil, lana dauka, ezkontzekotan dabil, baina amaren barri dauenean, ametsak zapuztu egingo jakoz Amari ebakuntza larri bat egin behar deusiel eta, etxera bueltatzen da. Eta bidai horretan egingo dauz hausnarketak eta historiari errepaso.

DISKOAK

"Greatest hits 1970-2002"

John, Elton

34 abestiz eta liburuxka batez osatutako disko honetan errepasoa egiten jako Ingalaterrako abeslari honen lanari.

"Live in Paris"

Krall, Diana

Kanadan jaiotako emakume honek jazz mundua liluratu dau. Musikari artean bizi izanda eta AEBko hainbat musika eskoletan ibilita, musikagile inportanteekin inguratu da bere lanetan.

DENBORA PASA

6 ezberdintasunak

Oraingo honetan ere 6 ezberdintasun aurkitu behar dituzu argazki bion artean. Badakizu nongo kanposantua den?



Txorierriko eskolen arteko ekitaldi kulturalak

Martxoaren 20an. Umeentzako **Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak**, goizean. Erdi Ziklotik gorakoentzako **Txan Magoren magia emanaldia**. Gazte eta Nagusientzako **literatur emanaldia BBK taldearekin**, 20.00etan. Txorierriko AEK-k antolatuta.

Hitzaldiak

Zamudio

Tratu txarrei buruzko hitzaldia. Martxoaren 6an, 20:00etan, dorretxean. Gazte Asanbladak antolatuta.

Irteerak

Zamudio

"Peribañez y el comendador de Ocaña" antzezlan. Martxoaren 13an, Arriaga antzokian.

Kepa Junkera. Martxoaren 28an, Arriaga antzokian.

Les luthiers. Martxoaren 13an, Euskalduna jauregian.

Lezama

Mendi irteera. Otsailaren 16an, 8:30etan. Udalatx Uztepetik igoteko. Gailur Mendi Taldeak antolatuta.

Txamuskina antzelana. "Txintxa rapiña"

umeei zuzenduta dago. Martxoaren 23an, Social Antzokian (Basauri). Galdetu liburutegian.

Kepa Junkera ikusteko irteera. Martxoaren 29an, Arriaga antzokian. Galdetu liburutegian.

Ikastaroak

Sondika

Altzari eraberritze, eskulangintza, umeentzako musika-hasiera eta dantza ikastaroa. Apirilaren 1etik ekainaren 19ra arte. Toki libreak daude. Apuntatzeko epea: martxoaren 3tik 7ra, liburutegian.

Zamudio

Areto-dantzak. Martxoaren 18an hasiko da.

Filmak eta antzerkia

Loiu

"La muerte y Nat", Oliver Productions taldearekin. Martxoaren 4an, 20:00etan, Zabaloetxe Nagusien Etxean.

"Contigo en la distancia", Oliver Productions taldearekin. Martxoaren 28an, 20:00etan, Lauroeta Igurune Aretoan.

Zamudio

"Jimmy Neutrón", martxoaren 7an. **"101 dálmatas II"**, martxoaren 14an. **"Mr. Bones"**, martxoaren 21ean. **"Mr. Magoo"**, martxoaren 28an. Dorretxean 19:30etan

Umorezko antzerkia, Martxoaren 29an, 20:00etan, dorretxean.

Lezama

"Pekin 36002", Oihularia Klown-en eskutik (gazte eta nagusientzat). Martxoaren 16an, 17:30etan. Kultur aretoan. Galdetu liburutegian.

"Iturian zer dago?" ikuskizuna. Apirilaren 5ean, frontoian, 20:00etan. Sarrerak (3,00 euro) alde zurretik salgai. Galdetu liburutegian.

Umeentzako ekitaldiak

Sondika

Iñaki Magoa. Martxoaren 28an, 15:30etan liburutegian.

Lezama

Ipuin Kontalaria. (5-10 urte bitarteko-entzat). Martxoaren 16an, 17:30etan. Galdetu liburutegian.

Larrabetzu

Txan Magoa. Martxoaren 4an, 16:00etan, frontoian.

Erakusketak

Sondika


Silvia Diezen olioak. Martxoaren 3tik 17ra.

"Las mujeres en el trabajo" BBKren argazki erakusketa. Martxoaren 18tik 31era.

Lezama

Bizkaiari begira. Joan fontcuberta. Martxoaren 7tik 19a arte. Dorretxean.

ZAMUDIO BERRIKO LURLANGILEEN ETXEA
TYRERBATZUA AGRIKOLA GANATZETZAN ZAMUDIO BERRI
HERRIKO LURRIEN ZERBITZUA
Santi Mami auzoa, 1
Tel: 94 454 18 90
Fax: 94 454 17 11
EKT.30 ZAMUDIO BERRI (Kokoa)



SANTI MAMI
Auzoak

Tel: (94) 454 18 90
Udala: (94) 454 05 20 15



OPTIKA IKUSLAN

Betaurreko graduatutik
Kontaktu bariak
Eguzkitako betaurrekoak
Lodiazongo markak

Ora kalak, 3. floor. 91 452 28 18 ZAMUDIO



GUEDAN
servicios deportivos, s.a.

ZAMUDIOKO UDAL KIROLDEGIA

Herrero Sánchez, J. - Prolongación Prolong. C. Nalanda, 1. 48011 48 8053
Telefono: 94 429 89 10 - Fax: 94 429 87 12
Zamudioko Psikologia: Telefono: 94 452 21 20 - Fax: 94 452 30 74



MENFORSAN S.A.
IZURRIEN KONTROLA

Menforsan, izurriko kontrola - Ingarurien kontrola
Универсальная служба контроля качества - Изуррийн контрол

- Izurrien kontrola.
Изуррийн контрол
- Ogasun publikoaren atala.
Агаарын гялалын тасаргаарын ний тасаргаарын
- Egunerako atala.
Агаарын, хийн ний тасаргаарын ний тасаргаарын
- Пир, агаарын тасаргаарын тасаргаарын тасаргаарын
- Аллагаар, агаар, хийн, бурдин ний тасаргаарын тасаргаарын

Berme osoa

AVDA. PINA, 17 - 48170 ZAMUDIO - BOVIA - APDO. 1289 BILBAO
TEL: 94 452 02 64 - FAX: 94 452 30 40



Etorkizuna Eraikitzen

Garapena eta Ingurugiroaren artean.
Teknologia eta Enpleguaren artean.
Banaezina.



GRUPO

Industria de Turbo Propulsores, S.A.

Hornitu

mobila BBK-ko kutxazainetan



Hornitu mobila erarik erosoenean

Edozein izanik telefonia mobileko zure operadorea, dagoeneko, edozein txartelekin hornitu dezakezu zure telefonoa, erraz-erraz, BBK-ko edozein kutxazainetan.

bbk =